1919tik | 2.556 zenbakia | 2017/06/04 | 3,90 € | argia.eus

ARGIA

ERRAUSTEGIA PROTESTEN PIZGARRI

EREDU SOZIALA AUZITAN JARRI DUTE ZUBIETAN

JAVIER VALDEZ NARKO KAZETARIA, MEXIKOKO GERRA EZKUTUAREN AZKEN BIKTIMA

NEREA FILLAT, KATAKRAK LIBURU-DENDA: "NAFARROAN ALDAKETA ORAIN EZ DA BEREZIKI SINESGARRIA"

BIDANE PETRALANDAK AZALERATU DU OSAKIDETZAK EUSKARAZKO ARRETAN DUEN ZULOA

02556
9 771988 139093

ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

Aitzezarra,1

Zumartegi industrialdea

✆ 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com

ARGIA

2.556 zenbakia | 2017/06/04

PANORAMA

4 Asteko argazkia
6-9 Albisteak
7 Hor dena gailu
10 Net Hurbil: Javier Valdez, beste kazetari bat hilda Mexikon

IRITZIAK

17 Estitxu Garai Artetxe
18 Nora Barroso
19 Iñaki Murua
Itziar Bardaji Goikoetxea
20 Bertsoak: Eli Pagola

Nerea Fillat aktibista iruindarrarekin hitz egin dugu. Katakrak liburu-dendan dihardu gaur egun. (ARGAZKIA: DANI BLANCO)

37 DENBORAREN MAKINA
38 BIZI BARATZEA
40 ARGIA KOMUNITATEA
48 KULTUR KRITIKA
50 ZUZENEKO EMANALDIA
51 DENBORA-PASAK
52 ARGI-KONTRA:
ITXASO MARTIN
54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA: DANI BLANCO

SAKONEAN

12 | Nerea Fillat (Katakrak): "Hau ezin da izan aldaketa politikoak ekarri behar zuen guztia" / Reyes Ilintxeta
22 | Zubietako erraustegia: Erregimenak linfoma bat dauka Gipuzkoan / Pello Zubiria Kamino, Dani Blanco
27 | Paula Tordesillas: "Lurzorua babesten ez badugu egoera kaotikoa dator" / Hegoi Belategi
30 | Macronek VI. Errepublikaren bidean jar lezake Frantzia / Mikel Asurmendi
32 | "Mediku zirkuituen bidez lor daiteke lehenetsitako hizkuntzan arreta jasotzea" / Ainhoa Ortega Bretos
34 | Eulàlia Reguant (CUP): "Erreferendumik ez badago legealdi honek ez du zentzurik" / Saioa Baleztena
42 | Zazpi zaldi deukodaz / Itxaro Borda
45 | Arte iruzkina: Alain Urrutia / Xabier Gantzarain
47 | Andrés Daniel Sainz: "Euskal Herrian ekoizleak falta dira" / Gaizka Izagirre

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak diruz lagundua

Gipuzkoako Foru Aldundia

DOAN ETA LIBRE
ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU, GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea.
Lehendakaria: Bego Zuza. **Zuzendaria:** Estitxu Eizagirre.
Erredakzioa: Ane Eslava, Axier Lopez, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Itsaso Zubiria, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Lukas Barandiaran, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona.
Diseinua: Sergio Labrador. **Argazkilaria:** Dani Blanco. **Produkzioa:** Antza S.A.L.
Harpidetzak: Iraitz Agirre. **Administrazioa:** Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte, Marijo Aiertza.
Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.
Idazkaritza: Aloña Soraluze, Bego Zuza. **Web garapena:** Asier Iturralde.

HELBIDEAK:
Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545.
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163.
Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580.
Nafarroa: Gaztelu ko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:
Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetzak: harpide@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus.
Interneten: www.argia.eus.
Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.
Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

ARGIA KIDETZA:
Kidetza harpidetzari lotuta egon beharrean, ARGIA komunikazio proiektua indartzera dago lotuta. Partikular eta kolektiboek, ahal duten eta egokitzat duten ekarpen ekonomikoa eginez, ARGIAk argitaratzen dituen kazetaritza lanak (aldizkaria, Larrun, Aktualitatearen Gakoak) jasotzeko aukera izango dute. Batez beste, ARGIA Jendeak 12,50 € jartzen ditu hilean proiektua indartzeko.
Erakunde publikoen kasuan, ohiko sistemari eusten diogu. Harpidetza tarifak: ARGIA astero (150 € urtean), ARGIA hamabostean behin (80 € urtean) eta ARGIA hilean behin (42 € urtean).

PANORAMA

Erresistentzia martxa koloretsua

Kolonbiako herri indigenetako milaka lagunek "lurraldea, bizitza eta herrien duintasuna" aldarrikatu dute Jamunditik Calirainoko martxan. Gobernuaren eta FARC-en arteko akordioaz geroztik 180 herritar indigena hil dituztela eta herri indigenen aurkako giza eskubideen urraketa etengabea dela salatu dute ondorengo komunitateetako kideek: Guainia, Meta, Guajira, Amazonas, Misak eta Chami. Amalurra defendatu eta babesteagatik beldurtzen, hiltzen edo herrietatik botatzen dituztela salatu dute. Beraiek, ordea, argi utzi dute: "Ez dugu etsiko".

Testua: Ane Eslava Serrano · Argazkia: Ernesto Guzmán Jr. / EFE

“Ez dago negoziaketarako inongo aukerarik, Errekaleor auzoa eraitsi egin behar da. Ensanche 21 elkarteari helarazi diogu eraiste-proiektua prestatzen joan dadila, emango dugun hurrengo pausoa izango delako”

Gorka Urtaran, Gasteizko alkatea

“Antisistemak direla diote, niri aldiz beraien sistema liluragarria iruditzen zait”

@AitorMiguelQ

“Ez da auzo eredu bat, gizarte eredu bat baizik jokoan dagoena; Errekaleorreko argiak bizirik jarraitu behar du”

@Jontxu83

“Azken urteotan atomizatuta dagoen herri mugimenduaren indar erakustaldia izango da ekainaren 3ko manifestazioa”

Karla Berrojalbiz, Errekaleorreko auzotarra (Hala Bedi)

NAFARROAKO GOBERNUA

AHTren obrak Cadreita inguruan; Castejón arteko zatia baizik ez dago eginda Nafarroan.

Madrilek badu AHT bat Nafarroarentzat...

Urko Apaolaza Avila
@urkoapaolaza

2023rako tren lasterra Iruñera iristeko zirriborroa igorri zion Iñigo de la Serna Espainiako Sustapen ministroak Manu Ayerdi Nafarroako lehendakariordeari, Madrilen maiatzaren 24an. Castejon eta Iruñea arteko zatia egiteko 800 milioi euroko aurrekontua litzateke. Ayerdik begi onez ikusi du proposamena, bere esanetan hiztegi bera erabili dute –trenbidea “korridore” gisa definitzea...–, baina letra txikia begiratu nahi du “iraganeko akatsak ez errepikatzeko”.

AHTk itzal handiak ditu Nafarroan: Alesbes eta Castejón arteko zatian –orain arte egin den bakarra– zor itzela atzeman zuen Kontuen Ganberak; eta Madrilgo Kongresuan babesa ematearen truke UPNk PPrekin hitzartutakoak ere mesfidantza sortu du. Baina katramila handiena etxe barruan du Gobernuak: Geroa Bai bakarrik geratu da proiektua defendatzeko orduan, EH Bildu eta Ahal Dugu kontra dira eta Ezkerrak esan du ez dituela foru-aurrekontuak babestuko AHTrentzako diru partidak badakartzate.

Tren sozialaren aldeko eragileek gogoeta sakonagoa eskatu dute. Beste trenbide plataforma bat egitea “burugabekeria” dela esan dute, eta Erriberako eta Nafarroa Erdialdeko trenbide konbentzionalean AHTk ekarri dituen kalteak nabarmendu dituzte: geltokiak itxi eta lanpostuak galdu dira. “Ez da lehentasuna hitzarmen bat sinatzea, Nafarroatik eta Nafarroan zehaztu behar da zein eredu behar eta nahi dugun”.

“Gasteizko Udalak arriskuan jarri du euskarak arnasa hartzen duen Gasteizko territorio libre bakarretakoa”

MANEX AGIRRE, EUSKARA TEKNIKARIA ETA BERTSOLARIA

Errekaleorren “Udalak, horrelako erabakiak hartzen dituenean, arriskuan jartzen du euskarak arnasa lasai hartzen duen Gasteizko territorio libre bakarretako bat. Auzokideei behin eta berriz entzun diegu, bizitzeko hartu duten filosofiarekin lotuta, beraien hizkuntza-hautua esplizitatzen. Ez duzu beste auzo-elkarte, egitura edo komunitaterik aurkituko Gasteizen, hain erabaki irmoa hartu duenik. Praktikan jarritako gizarte eraldaketarako proiektua hizkuntzaren esparruan ere irmo aplikatu dute”. **ARABAKO ALEA (2017-05-23)**


Gure Udaletxean ez dago Nafarroako Banderarik baina Errepublikarra bai :Hiru Kolorekoa!
Espainiera Gurea guztiz baztertuRik dago hezkuntzan: joan den asteam aurrekontuak bozkatu dituzte, eta adostu, Herriak 100€ emanen diola ikastolari eta 13.500€ frantses eskolari.
Ekainaren 3ko martxa antolatu duzuen espainiar bulartsuok: zuek zaituztegu azken esperantza
SK!

ECUADOR ETXEA

Irakasle pribilegiatuak, edo nola desprestigiatu hezkuntzako mobilizazioak

Mikel Garcia Idiakez
@mikelgi

EAEko irakasle publikoek lan-baldintzarik onenak dituztela esan eta pribilegiatu batzuk direla iradoki du Josu Erkoreka Jaurlaritzaren bozeramaileak. Mobilizazioak desprestigiatzeko estrategia baldin bada, Erkorekak jakin beharko luke ez dagoela egoera miserablean lanean aritu beharrik urtetan murrizten joandako baldintzak eta eskubideak berreskuratzea borrokatzeko; beste batzuk okerrago egoteak ez diola grebari zilegitasunik kentzen (haien eskubideak ere defenda ditzagun, baina ez jarri elkarren aurka, jokaldi makurra da-eta); eta batez ere, irakasleen lan-baldintzetatik harago doazela grebako aldarrikapenak: hezkuntza publikoaren kalitatea bermatzeko eta ikasleen euren heziketa hobetzeko murrizketak gelditu eta inbertsioa Europar Batasunaren batez bestekora handitzeaz ari dira grebalariak, gelako ikasle kopurua handitzeari uzteaz, ikasleak bost egunez irakasle ordezkorik gabe ez gelditzeaz...

Berekoiak?

Erkorekaren ustez, greba hauek ez daude "inolaz ere justifikatuta", baina ezin da baldintzak murrizten jarraitu eta erantzunik ez espero. "Ez da unea" diote Jaurlaritzatik, ikasle ugarik azterketak dituztela argudiatuz, irakasleek ikasleak kontuan hartu gabe berekoi jokatuko balute bezala, baina hain juxtu ikasleen euren heziketa ari dira borrokatzen. Eta gainera, zer esatea nahi duzue, Erkorekak ez dirudi egokiena irakasleek baldintza pribilegiatuak dituztela aditzera emateko.

Deskontatutako dirua hezkuntzara bideratu

Bestalde, hezkuntza publikoko grebei lotuta honako mezua zabaldu du hainbatek: "Irakaskuntzan konbokatutako grebaren deialdia jarraitu dugun irakasleen izenean, Eusko Jaurlaritzari eskatzen diogu, hiru egunetan gure soldatatik deskontatuko diguten dirua eskoletan inbertitzea. Ez dugu zilegi ikusten, gure aldarrikapenei esker, erakutsi duen sentsibilitate ezaz gain, gure diruarekin aberastea".

EKONOMIAREN TALAIAN

Film baterako moduko greba

Juan Mari Arregi

Ez. Zutabe honetan ez dugu normalean kulturaz idazten, politika ekonomiko sozial eta laboralak izaten ditugu hizketagai. Gaurkoak ordea, film kritika baten antza izan dezake: zinematografiaren artea erabili baitaiteke klase borrokaren zerbitzura eta euskal langile mugimenduaren historia gogoratzeko. Etxebarriko "Bandas"-eko grebari buruz ari naiz, duela 50 urte gertatua, eta orain zinemagile gazte batzuek dokumentalera ekarria. Doxa produzkio-etxearen eskutik, Larraitz Zuazo zuzendariak gidatu du *163 egun* filma eta joan den astean estreinatu zuten ETB2-n.

Esanguratsua eta nabarmentzeko modukoa da 1967an oraindik jaio ere egin ez ziren gazteek izan duten ausardia eta pazientzia. 163 egun iraun zuen greba luze hartako protagonistak bilatu eta borroka hura kontatu dute, profesionaltasunez eta zintzoki, izan irudi historikoak erabiliz nahiz eszenak berreginez. Kausa solidarioen zerbitzura jarri dute zazpigarren artea, oroimen historikoa eremu sozialera eta politikora eramanez, langileen mundura. Ederra litzateke langile greba honen antzeko beste historia batzuk ere eramango balira pantaila handira, Euskal Herrian halako asko geratzen baita oraindik modu honetan kontatzeke: zuzenean eta interferentziarik gabe.

Baina zinemagileek ezin dute hortik bizi, ekonomikoki ez omen da errentagarria. Euskal erakundeek halako lanak sustatu eta babestu beharko lituzkete, memoria historikoa berreskuratzeaz ari baikara, kasu honetan klase borrokaren atzean dagoena. Egungo belaunaldien ongizatea, orain krisiak murrizturik badago ere, atzoko greba eta barrikadetatik hasi ziren eraikitzen.

KEM MOC

“Bakean inbertitu dezagun”

BILBO. Ekintza zuzen ez-biolentoa egin dute KEM-MOC talde antimilitaristako kideek, Bruselan NATOren goi-bilera egiten ari zirela salatzeko. NATOko herrialdeen gastu militarra BPGaren %2 izan arte handitu dutela salatu dute. “Diru piloa zaborretara botatzea bezala da, nahiz eta hobe legokeen zaborretan. Gerra, suntsipena eta armamentu norgehiagoka bermatzea baita xedea, eta honi lotuta heriotza, miseria, errefuxiatuak eta bidegabekeria. Geldi dezagun gerra! Bakean inbertitu dezagun!”.

Marihuanaren erabilera terapeutikoa, epaitegietara

Pello Zubiria Kamino
@pellozubiria

Bi urteko espetxealdia eta 16.000 euroko isuna eskatu ditu Josep Pàmies baserritar eta landareetan adituarentzako Lleidako fiskalak, marihuanaren kontsumoa sustatzen duela leporatuta.

Ezagutza, autogestioa

Baserritar katalanak landareen erabilera terapeutikoa defendatzen du. Horien ezagutza eta erabilera autogestionatua sustatu du beti, tartean marihuanarena, zenbait eritasun arintzeko duen ahalmenagatik.

Behar duenari opari

Beregana jotzen dutenei proposatzen die nork bere kontsumoa arautzeko etxean haztea landareok, baina norbaitek produktu horien eratorriak presaz behar dituenean, Pàmiesek ez du ukatzen oparitu edo saltzea ere, borondatearen truke.

Legeztatzea

Dolça Revolució elkarteak epaiketan argitu du bere kideenak direla Pàmiestarren etxaldeko marihuana landareak, baina fiskalak ez du atzera egin eskaeran. Bide batez, marihuanaren erabilera terapeutikoa legezta dezatela eskatu du Pàmiesek.

MIGRAZIOA

34

lagun hil dira gutxienez, horietako 10 haurrak, Libiako kostaldetik Italiara abiatu den ontzia olatu batek jo eta 200 pertsona uretara erori ostean.

59.135

pertsona iritsi dira aurten Europara Mediterraneotik. Libiakoa da munduan gehien erabiltzen den itsasbidea, baita arriskutsuena ere.

IRLANDA BATUA

Irlanda batzeko erreferenduma egin nahi du Sinn Feinek bost urteko epean. Alderdi errepublikazale irlandarraren arabera, Brexitaren ostean urgentzia handiagoa dauka irla bi estatutan banatuta egoteari uzteak.

LAB-EN BILTZARRA

Garbiñe Aranburu izendatu dute LABeko idazkari nagusi. IX. Biltzar Nagusian zuzendaritza berria eta datozen urteetako gida-lerroak onartu dituzte 500 afiliatu inguruk. Azken urteetako balantzeaz Ainhoa Etxaidek esan du sindikatua gai izan dela “krisi garaiotan bere burua berrasmatzeko”.

KARIDADEKO BENTA

Asteasu-Zizurkilgo Karidadeko Benta taldeak irabazi du bertsotan Gipuzkoako Herriartekoa. Unai Mendizabal, Joseba Otaegi eta Haritz Mujika aritu ziren finalean. Guztira 38 talde aritu dira eta 54 saio jokatu dituzte.

Javier Valdezi 12 bala eta kazetari bat gutxiago ustelak salatzen Mexikon

Pello Zubiria Kamino
@pellozubiria

125 kazetari hil dituzte bortizki Mexikon 2000tik gaurdaino, aurten bertan zazpi. AEBak drogaz hornitzen dituen herrialdean, ustelkeriaren salda berean bizi dira agintari politikoak, konpainia handiak eta talde mafiosoak. Poliziak, militarrak eta sikarioak nahasten dira bere ekonomia nazioarteko itunen poderioz hondoratzen ikusi duen Mexiko honetan. Kazetariak hemen lekuko gogaikarriegiak dira.

Maiatzaren 15ean, hil zuten egunean, Javier Valdez 11:56etan irten zen *Rio Doce* astekariko erredakziotik. Oscar webaren administratzaileari "*Dios me bendiga*" esan zion, despeditzerakoan ohi zuenez; "...eta konfesaturik harrapatu zaitzala" erantzun Oscarrek irribarrez, betiko broma osatuz. Astekariko hiru langilek ikusi zuten azkenekoz kazetari lodikotea. Minutu gutxi lehenago Valdezen kapelu ezagunarekin elkarri argazkiak egiten arituak ziren txantxa artean. Irten zenetik ez ziren bost minutu izango paseak eraikineko bizilagun bat sartu zenean bulegoan "zuen lankideetako bat tirokatu dute!" oihuka.

Antza denez, bere *Toyota* gorrian sartu eta ehun metro egiterako bidea itxi zion auto zuri batek. Bi gizonek belauniko jartzera behartu ondoren kale gorrian 12 tiro eman zizkioten, bat buruan. Horrela mututu zuten Culiacanen (Mexiko) Sinaloa estatuko narkotrafikoaren inguruko gatazka odoltsua inork baino hobeto kontatzen zuen kazetaria, *Rio Doce* astekarian eta *La Jornada* egunkarian idatzitako kroniketan, baina baita liburuetan ere: *Miss Narco*, *Huérfanos del narco*, *Malayerba*, *Narco Periodismo. La prensa en medio del crimen y la denuncia*...

2011n eman ziotelarik Prentsa Askatasunaren Nazioarteko Saria, hitzaldian esan zuen: "Sinaloako Culiacanen arriskutsua da bizirik egotea eta kazetaritza egitea da ibiltzea zanpatuz lerro ikusezin bat, narkotrafikoan eta Gobernuan dauden gaiztoek egindakoa. Erne ibili behar da denarekin eta denekin".

2000 urtetik Mexikon 125 kazetaritik gora hil dute, narkotrafikatzaileei egotzitako krimenen kontabilitate ofizialetan. Ez asko, Felipe Calderonek 2007an narkotrafikoaren kontrako gerra deklaratu zuenetik Mexikon bizia galdu duten 170.000ren artean. Gehiegi, inor ausartu dadin askatasun minimo batez informazioa bermatzera munduko herrialderik arriskutsuenetakoan gertatzen denaz. Mexikon ofizialki hildako kazetarien zerrendetatik kanpo geratzen dira kazetari desagertuak, hedabideetako beste langileak, hiriburutik urrutik irrati komunitarioetan ari diren profesional eta boluntarioak.

Mexiko hiriburutik, gaiok jorratzen dituen *Proceso* astekariak bi kazetari galdu ditu, horietako bat bere lagun eta guzti, eta gaur dauzkan 15 kazetarietatik 7 heriotza mehatxupean daude. Tartean Jose Gil Olmos kazetari beteranoa, 1994an Chiapasen soldaduek egindako bortxakeriez idatzi zuenetik. Kazetari mexikarrek bizi duten egoera dramatikoa eta batzuetan surrealista ere dirudiena azaldu zuen otsaileko *Memoire des luttes* aldizkari frantsesean.

"Gerrako korrespontsal bilakatuta gaude –zioen Gil Olmosek–, baina gerra ez konbentzional batekoak. Gatazka klasiko batean bada fronte bat gutxi gora behera marraztua. Mexikon inork ez daki nor den nor. Poliziek, bai udalenek, estatuarenek edo federalek, eta bai militarrek borrokan aurrez aurre aurkitzen dituzte krimen organizatuaren talde armatuak, gehi autodefentsak –herri miliziak batzuetan kartelek edo agintariek manipulatuak– eta polizia komunitario indigenak. Gertatzen da agintearen indarrak beren artean borrokan hastea ere".

Gerretan *Press* afixa erakusten den bezala, Mexikon kazetariek ezkutatu egiten dute hala direnik. *Proceso*ko kazetariek protokolo zorrotza betetzen dute leku arriskutsuetara doazenean: inoiz ez joan bakarrik, ez eraman grabagailurik, hoteletan *saltzaileak* dira, kontroletan *baserritar* aurkezten dira, autoa ez alokatu hiriburuan matrikulagatik, ez edan alkoholik, kontuz hurbiltzen zaizkizun emakume politekin, erredakzioarekin *Telegram* enkriptatuaren bidez komunikatu... Baina hiriburutik urrun gune gatazkatsuetako hedabideetan ari diren kazetariek ez daukate eskueran horrelako mozorrorik.

Etsita ere aurrera jarraitu

1967an Sinaloako Culiacanen jaioa, soziologia ikasia, ia 30 urte zeramatzan Javier Valdezek kazetaritza egiten hiriburutik 500 kilometrora. Azken aldian jarraipen berezia egina zion Mexikoko agintariek Joaquin *Chapo* Guzman AEBetara estraditatu ostean Sinaloako kartelaren barruan sortutako liskarrari, narkoen hierarkia dagoelako jokoan.

Maiatzaren 3ko *La Jornada* egunkariko kronika batean kontatu zuen *Chapo*ren

'El Despertar' hedabidetik hartutako argazkian, Javier Valdez Cardenas kazetariaren gorpua maiatzaren 15ean sortzen ikusi zuen Culiacan hiriko kale gorrian. Kronikan sinesten zuen Valdezek: "Badakit idatzirik onenak ere ez duela azaltzen osorik infernu hau, baina hurbiltzen zaio, fenomenoaren gakoekin egiten du jolas, datu eta zenbaki soiletatik harago sakontasunetik erakutsi dezake nola bizi, gozatu eta sufritzen den narkoa kalean, eskolan, kafetegian, ostatuan, kale kantoian, antroan... gure eguneroko narkoa. Hori da erronka".

semeek eta Damaso Lopez *El Licenciado*k edukitako elkarrizketa bero bat, tiroka amaitu zena. Irakurleari eskainitako xehetasunek erakusten zuten Valdezek zer nolako ezagutza zeukan Sinaloan gertatzen ari denaz. Azken albistea hil baino egun pare bat lehenago plazaratu zuen: "Komando batek Navolato (Sinaloa) herriko zinegotzi bat hil du".

Valdezek kontatu izan zuen nolako presioak jasaten dituzten bera bezalako kazetariek alde guztietatik. Narko talde batek indarra galtzen badu, buruzagia atxilotu badiote, kazetaria deitzen dute albistea publikatu ez dadin; ordu beteren bueltan beste talde batek telefonatuko dio zuzendariari exijituz albistea publikatzeko, eta geroago hirugarrenak, aginduz lehen orrian eta hitz handitan plazaratzeko. Azkenean, kazeta plazaratu bezain fite, sikario talde batek kiosko guztietan banan bana erosiz desagerrarazi ditzake ale guztiak. Aldi berean, erredakzio barrutik '*oreja*' (salatari) batek mafiosoei ezagutarazi die halako albistea jakin bat nork egin duen, eta hurrengo zenbakietarako zein gai ari diren jorratzen aldizkarian.

Valdez aspaldi zegoen etsita kazetaritzaren porrotarekin. *Narkoa* ikertu eta eztabaidatzea alboratuz, orain hedabideak hildakoak zenbatzera mugatzen direla, ez dituztela kontatzen jendeen istorioak, hiltzaileenak, biktimenak. Beldurrak eta autozentsurak gaina hartu dutela Mexikon. Kroniketan sinesten zuen, nahiz eta jakin idatzirik onenak ez duela bilduko osorik infernu hura.

Valdez ez zen baikorra etorkizunaz. 2011n nazioarteko saria eman ziotenean geroaz galdetuta esan zuen: "Hau oraindik are gehiago konplikatuko da. Narkoagatiko bortizkeriak aurrera egingo du, gobernu federalak aurrera egingo baitu hau gerra bailitzan tratatzen, funtsean negozioa denean: arma gehiagok, soldadu, polizia, ekipo eta patruila gehiagok ekarriko dute heriotza eta bortxa gehiago eta eguneroko beldurra, bizimodu bat. Baretzera joko balu ere, konpondu ezina da orain arte gertatuak gure 30 milioi haurri eragindako kaltea, gaztetxotan eta handitan beren haurtzaroa gerrate moduan oroituko dutelako. DNAn, geneetan, larruazal barruan eramango dute bolbora, odolen zipriztina, kakalarriari eutsi ezina. Nire buruari galdetzen diot aurrekari horrekin zer heldu jende izango diren, zer guraso, funtzionario, gidari politiko, ekintzaile, maisu. Hori da beste heriotza, gure etorkizunarena, horra gatazka honen emaitzarik tristeena, okerrena". ■

Nerea Fillat, Katakrak proiektuko kidea

«Hau ezin da izan aldaketa politikoak ekarri behar zuen guztia»

Nerea Fillat iruindarra aktibista da. Kontraboterea, feminismoa, elikadura burujabetza eta eraldaketa soziala moduko kontzeptuak egunerokoan tresna eraginkor eta emankor bihurtze aldera lanean dihardu.

Reyes Ilintxeta
@Reyesllintxeta
ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Non daude zure pentsaera politikoaren lehen oinarriak?

Nire bizitza baldintzatu duen elementu oso garrantzitsua izan da ikastolan ikasi izana, 80ko hamarkadan Iruñean ikastolen inguruan egon zen mugimendu horretako partaide izatea. Eszenatoki politikoan, horrelako gauzek sakonki baldintzatzen zaituzte, hiriko mapan hizkuntzaren afera garrantzitsua denean. Oso eraginkorra izan zen guregan, ez soilik hizkuntzarengatik, baita garai hartan ikastolek zuten zentzu komunitarioarengatik ere. Ideia komunitario horri zentralitatea eman nahi izan diot nire bizitza osoan.

Zure ikasketak eta lehen lanak harri zaharren artean kokatzen dira?

Historia ikasi nuen eta historiaurrean espezializatu Nafarroako Unibertsitatean eta Madrilgo Complutensen. Arkeologia maite dut eta arkeologo lanean aritu nintzen hainbat urtez. Espainiako higiezinen burbuilaren garaia zen orduan eta egin ziren hainbat eta hainbat lan publikoren ondorioz, arkeologoek lan pila izan genuen. Ikasi eta berehala hasi ginen lanean, krisia iritsi arte.

Asko sufritu behar izan zenuen ondare suntsipenarengatik?

Gazteluko Plazako aparkalekua bezalako afera gogorretan ez nintzen aritu, baina Iruñea eta Logroño lotzen dituen Bideko Autobidean adibidez bai, eta Lizarra aldean aztarnategi asko daude. Oso metafora argia da ikustea nola pasatzen diren hondeamakinak ondare arkeologikoaren gainetik. Horrek ez du zentzurik, baina, finean, erabaki politikoak dira eta kito.

Nola pasa zinen indusketetatik Eguzki Bideoak ekimenera?

Tarte batez kultur ondarea eta turismoa lantzen zituen enpresa batean aritu nintzen lanean, baina utzi nuen beste grina batzuk sentitu nituelako. Enpresa politikoak deitzen ditugunak sortzen ari ziren, oso gertutik ezagutzen nituen. Lana eta eraginkortasun politikoa elkartzen dituzten figurak ziren eta horretan murgiltzea erabaki nuen.

Eguzki Bideoak kolektiboan hasi nintzen parte hartzen. Oso mugimendu interesgarriak egon ziren 2000. urtearen bueltan. Alde batetik, krisia oraindik ez zen gero izan zena bezain sakona, eta beste aldetik, garai hartan gertatu zen mundu analogikotik digitalerako jauzi erraldoia. 2004an, Iruñeko Udalak Euskal Jai gaztetxea hustu eta eraitsi zuen. Mundu mailan, antiglobalizazioaren zikloaren amaiera iritsi zen. Ondorioz,

Nerea Fillat Oiz

1977, Iruñea

Historian lizentziaduna eta Arkeologian espezializatua. Lana eta eraginkortasun politikoa elkartzen dituzten enpresen bultzatzailea: Eguzki Bideoak kontrainformazio kolektiboa, La Hormiga Atómica liburu-denda eta orain Katakrak liburu-denda, kantina, eta ideien gunea.

EDUCAR SIN DROGAS
ANGELA DAVIS

lana eta militantzia elkartu zitezkeela pentsatu genuen. Eguzki Bideoak kolektiboan hiru pertsona hasi ginen lanean, guk *"experimento"* deitu genion ekimen hartan.

Helburua zein zen?

Ni iritsi nintzenerako haiek hamar bat urteko ibilbidea zuten egina, Eguzki Irratitik abiatuta. Kontrainformazioaren ildoari jarraikiz, ikus-entzuneko kontrainformazioa egitea zen helburua: kolektiboak grabatzea, dokumentalak egitea... Digitalizazioaren etorrerarekin ekoizpena nabarmen azkartu zen. Garai hartan, gainera, jende gehiagorekin elkarlanean aritu ginen, Itoizko urtegiaren edo gaztetxearen hustuketaren kudeaketa informatiboa antolatzeko, adibidez. Oso garrantzitsuak izan ziren gatazka horiek bizi genituenontzat. UPNk oso ongi zekien zertan ari zen. Kontrabotere guneak oso ongi ezagutzen zituen eta bazekien zein ondorio ekarriko zituen haiek kolpatzeak. Gaztetxea bota zutenean gune horietako asko desartikulatu eta pertsona asko umezurtz gelditu ginen.

Higiezinen zikloaren argazkia oso latza da. Hala ere, konplizitate eta mugimendu oso interesgarriak sortu ziren ondoren. Hemengo kooperatibetatik, beste hirietako mugimenduen ereduetatik eta gaztetxearen inguruko taldeetatik sortu zen humusa beste proiektu batzuk abiatzeko, horietako bat La Hormiga Atómica liburu-denda. Katakrak bada mugimendu horien jarraipena. Katakrak ezin da ulertu La Hormiga gabe.

Tamainaz gain, zer alde dago bata eta bestearen artean?

Helburua, hirian duen eragina, eraginkortasuna, lanean ari den jende kopurua, forma juridikoa, proiektuak... Orain gaitasun handiagoa dugu beste hainbat gauzatan eragiteko. Hemengo kantinan eta tabernan elikadura burujabetzaren inguruan egin diren gogoetak oso garrantzitsuak izan dira, esate baterako. Esparru honetan lan egiteko modu berri bat eratu dugu: ekoizleekin konfiantzako harreman zuzenak ezarri, sareak sortu, errespetuzko harremanak bermatu, prezio justuak mantendu, eta batez ere, toki bat zabaldu dugu non produktu horiek kontsumitu daitezkeen modu errazean. Funtsezkoa bide hori sortu izana da. Gauza bera esan genezake liburu-dendaz, ekitaldi aretoaz eta berriki sortu dugun argitaletxeaz.

Garrantzitsuena da ikustea nola Katakraken inguruan sortzen diren harremanetatik beste batzuk sor daitezkeen. Harreman bertutetsuak dira.

Adibidez?

Oso tematua nago ikastetxeetako jantokien ereduarekin. Gaur egun zabalduta dagoen eredua, catering zerbitzuak irizpide pedagogikorik gabe, ezin dugu onartu gure seme-alabentzat. Hemen eta hau bezalako espazioetan sortzen diren harremanetatik etor daitezke erantzunak. Iruñeko Udalaren Haur Eskoletan hasi dira bertako elikagai ekologikoetan oinarritutako elikadura eredua ezartzen eta hurrengo pausoa izanen da eskola guztietara eramatea. Bagoaz aurrera. Ez da guk sortu dugun mugimendua, baina gu prozesu horren parte gara.

Toki fisiko bat izatea noraino da garrantzitsua harreman horiek gauzatzeko?

Ezinbestekoa da. Hala ere, esparru fisiko handia izateak lan handia dakar eta horregatik agian ez ditugu oraindik lortu hasieran genituen helburu batzuk, esate baterako eztabaida politikorako denbora gehiago izatea.

Baina Katakrakek ekarpena egin dio Nafarroako aldaketa politikoari…

Bai. Hau izan zen eztabaida saioetan alderdi politiko guztietako kideek parte hartu nahi izan zuten toki bakarra, adibidez. Baina hemendik aurrera ez dago erantzun itxirik, egoera itxita ez dagoelako. Oraindik ez dugu definitu Katakrakek zein egiteko izan dezakeen oraingo Iruñean. Sortu zenean argi zegoen hiriak behar zuela esparru bat handia, anitza, baldintzarik gabea, non eztabaida politikoak eta bestelakoak sor zitezkeen, halako jardueretarako udalak ez baitzuen deus eskaintzen. Orain Udalak *civivox* edo kultur zentroetako baldintzak aldatu ditu, denon zorionerako, eta horrekin batera gure egoera ere aldatu da.

Hurrengo hauteskundeetan aldaketak jarraituko duela uste al duzu?

Aldaketa mantenduko da sinesgarria baldin bada. Ez dauka beste deus. Orain ez da bereziki sinesgarria. Ezin dut sinetsi aldaketan gaudenik. Badakit gauza batzuk hobetu direla, eta ongi dago, baina minimoa iruditzen zait. Hau ezin da izan aldaketa politikoak ekarri behar zuen guztia. Hiri hau oraindik oso gogorra da jende askorentzat.

Argitaletxea sortu berri du Katakrakek. Zein helbururekin?

Kapitalak gogoko ez dituen harremanik sortzen ez badugu, esan nahi dut, konfiantza eta burkidetasuna helburu dutenak, ez dugu bermatuko bestelako bideak ireki ahal izatea. Baina kontuan hartu behar dugu dena ez dela mikro politikoa, gainazalean ere eztabaidatzea garrantzitsua da eta horregatik zabaldu dugu argitaletxea. Beste eztabaiden mailan eragiteko tresna jarri dugu abian. Zein liburu argitaratu nahi dituzun hautatzen duzunean, zein tokitan egon nahi duzun erabakitzen ari zara eta zein ideia hartu nahi dituzun eztabaidetarako abiapuntu gisa.

Zer da feminismoa?

Askatasun handiagoa lortzeko bide bat. Feminismoak proposatzen dituen harremanak gauzatuko balira, mundu askatzaileagoa sortzeko aukera izango genuke. Lana, kontsumoa, egitura guztiak, erabakitzeko modua, zer den errespetua, zer den garrantzitsua... kontzeptu horiek guztiak sistema patriarkalean oinarrituta daude. Feminismoa da harreman horiek guztiak aldatzeko tresnetako bat, garrantzitsuenetarikoa, nire ustez.

» "Zaintza baloratzen ez den bitartean, ez dago ezer egiterik ez politika instituzionalean, ez kooperatibetan, ez kolektiboetan, ez inon. Zergatik egin behar zaio uko zaintzari? Lantzen ditugun eredu horiek guztiek ez dute balio, horretarako denborarik ez badugu"

» "Iruñea oraindik oso gogorra da jende askorentzat"

Une honetan oso tresna eraginkorra ari da izaten, muga asko izanik ere. Hortik izendatutako gauza ugari gizartearen erdigune bilakatzen ari dira gaur egun: bortizkeria; sexu erasoen kontrako jarrerak; erakunde, alderdi politiko eta esparru publikoetan emakumeak egoteko beharra... Hori dena aspalditik aldarrikatzen da feminismotik eta gaur egun hedabideetan ditugu egunero. Aurrerapauso handia da.

Parekotasunaz zer iritzi duzu?

Ez dut uste parekotasuna irtenbide bakarra denik. Ez da askatzeko bidea, baina erabakimen postuetan soilik gizonak egotea okerrago da. Beraz, lan egiteko tresna da. Kontraesan horretan bizi naiz. Bestalde, kuoten bidezko banaketak edo kremailera zerrendak egiten direnean, entzuten da emakume batzuk ez daudela aski prestatuta zenbait kargutara iristeko, baina ez dago argi hor dauden gizonak haiek baino hobeak direnik. Balore patriarkaletan oinarritutako pentsamenduaren ondorioa da.

Eta amatasuna? Batzuetan ematen du azalpenak eman behar direla ama izan nahi izateko.

Zainketen krisiaren ondorioa da azalpe-

nak eman behar izatea. Zaintza mahai gainean dugun erronka handi bat da. Hemen bizia antolatuta dagoen bezala, zaila da jendea errespetuz edo egin nahi den bezala zaintzea. Horregatik azken urteotan eztabaida sakonak daude amatasunaren inguruan. Batzuek eredu berriak proposatu dituzte, zainketa naturalen ingurukoak esate baterako, baina ez nago seguru horiek askatzaileagoak direnik, hain zuzen ere komunitateaz eta baldintza materialez mintzatzen ez direlako.

Katakraken amatasunaren inguruan eztabaidatzeko eta pentsatzeko taldetxoa sortu genuen iaz, eta *Amatasuna, ekonomia eta komunitatea* hitzaldi sorta antolatu zuen. Ekainean ama eta kartzela gaiaz arituko gara eta hemendik gutxira alokairuzko sabelei buruz.

Etorkizunari begira zer sumatzen duzu?

Ezin dut erantzun borobilik eman. Katakrak ereduan sakondu behar dugula uste dut, ikuspuntu anitza eta kolektibotasuna zentroan jartzen dituena. Gauza gehiago ere baditut esku artean, baina egunean ordu gehiago beharko nuke. Saiatzen naiz oso muga itxiak jartzen eta hemendik kanpo gauza konkretuei eusten. Hala ere, argi dago militantziaren eredua gizon aske batena dela. Bilera guztiak arratsaldeko zortzietan dira, eta nik adibidez, bi ume txiki izanda, askoz zailagoa daukat dinamika horietan parte hartzea. Hori ikusten ez den arte, zaintza baloratzen ez den bitartean, ez dago ezer egiterik ez politika institucionalean, ez kooperatibetan, ez kolektiboetan, ez inon. Zergatik egin behar zaio uko zaintzari? Zergatik ez du izan behar eramangarria? Lantzen ditugun eredu horiek guztiek ez dute balio, horretarako denborarik ez badugu. Hori da feminismoaren erronka: erabakitzea zein gauza diren garrantzitsuak eta horiei bere lekua ematea. ■

Azken hitza: Gizon feministak

"Nik ez dut esaten gizonak ezin daitezkeenik feministak izan, baina zaila egiten zait pentsatzea haiek zein toki izan dezaketen militantzia feministan. Feminismoa landu nahi duten gizonezkoei esanen nieke, politikoki eraginkorrena litzatekeela pauso bat atzera ematea, eta haien artean, gizonen artean, feminismoak planteatzen dizkien aferez hitz egitea. Haien bidea eratu behar dute eta horretarako haiek egin behar dute lan".

Bazen behin, bada gaur

Estitxu Garai Artetxe
EHU-KO IRAKASLEA
@egarai

Bazen behin auzo txiki bat, hiri txiki baten eta erreka lehor baten magalean bizi zena. Aspaldidanik, dirugileak izeneko talde batek agintzen zuen munduan. Dirugileek pertsonen lana behar zuten dirua egiteko, eta horrela sortu zen auzoa, hiriko lantegietara etorritako familiekin. Produktuak ekoiztearen truke langileei soldata ematen zitzaien, eta soldata hori atzera eurek egindako produktuak erosteko erabiltzen zuten, benetan ekoizteak balio zuena baino dezente garestiago. Hori zen dirugileek dirua pilatzeko zuten bidea. Denboraren joanarekin, alabaina, dirugileek mauka berria topatu zuten: poltsikoak betetzeko modu errazena etxeak salerostea bihurtu zen. Neurrigabeko sektore bat bazen, hura etxebizitzarena zen. Orduan, dirugileek ikusi zuten auzoa hustea zela errentagarriena, bertan garesti salduko ziren etxe berriak egin ahal izateko. Eta auzoa ia hutsik utzi zuten.

Diru-goseak ez zuen mugarik. Etxebizitzaren prezioek gora eta gora jarraitzen zuten. Jendeak etxeak erosteko dirurik ez zuenez, dirua ere saldu egiten zitzaien, bizi artean diru hori ordaintzen egotearen baldintzapean. Baina une batetik aurrera askok ez zuen zorra ordaintzeko adina diru, eta eraikitako sistema osoak eztanda egin zuen. Eztanda horren harira, auzoan egitekoak ziren proiektuak etenda geratu ziren.

Egoeraren krudela berriro ere langileek ordaindu zuten, soldatak murriztu zitzaizkien, lantegi asko itxi eta beste batzuk tokiz aldatu zituzten. Jendeak ezin zuen lanik topatu ezta etxerik eskuratu ere. Herritar guztiei esaten zitzaien ez zegoela beste biderik, euren helburua kosta ahala kosta lana topatzea izan behar zuela, miseria baten truke bazen ere, eta gero etxea lortzeko sorgin-gurpilean berriro jaustea, bizi arteko zorra hartuta.

> Erakunde publikoetako kudeatzaile askok espazio aske eta autogestionatuekiko duten ezinikusia ez da kontu berria. Eta honako galdera egin beharko genuke: zergatik egiten zaizkie horrelako proiektuak hain deseroso?

Orduan abiatu zen auzogileen ekimena. Ez zuten sinesten bizimodua antolatzeko era bakarra dirugileek markatutako hura zenik, eta bizigabe utzitako auzoko etxeetan sartu ziren. Elkarlanean sinesten zuten, eta bazekiten banaka gutxi batzuk baziren ere, elkarri lagunduta beste modu batean biziraun zezaketela. Euren lanari esker, auzoa birmoldatzen eta beharrezkoak zituzten gauzak ekoizten joan ziren pixkanaka. Erakutsi zuten bazela gauzak egiteko beste modu bat, justuagoa, pertsonen ongizateari eta euren arteko berdintasunari begiratzen ziona eta ez diruari. Eta hutsik geratutako auzoari bizi berria eman zioten, dirugileen sistema ankerretik at. Hasieran hamar zirenak, hogei bilakatu ziren, eta gero ehun, eta proiektua hazten eta hazten joan zen, eta auzolanean zoriontsu bizi izan ziren urte luzez.

"Eta hala bazan ala ez bazan... Ez, ez zan". Umeei kapitalismoa azaltzeko eta esperantzarako izpia emateko ipuin polita izan zitekeen aurreko hori, Errekaleor auzoko egoera eta Gasteizko Udalaren asmoak ezagutuko ez bagenitu. Erakunde publikoetako kudeatzaile askok espazio aske eta autogestionatuekiko duten ezinikusia ez da kontu berria. Eta honako galdera egin beharko genuke: zergatik egiten zaizkie horrelako proiektuak hain deseroso?

Nik funtzio publikoa ulertzen dudan moduan behintzat, ordezkari publikoek harro egon beharko lukete euren herri edo auzoetan horrelako dinamikak pizteaz, eta horien bidelagun izan beharko lirateke, ez etsai. Interes espekulatiboak alde batera utzita, agian erakunde horien mugak ageriko egiten dituztelako izango da, askoz baliabide gutxiago edukita, borondate eta elkarlan hutsez, funtzio publikoaren hutsuneak betetzen baitituzte bertan sortzen diren egitasmo askok. Bazen behin, bada gaur:

Errekaleor bizirik! ■

Bizipenekin sortzen duguna, horixe da magia

Nora Barroso
ARGIA-KO BLOGARIA
@axala_n

Oreretako AsteBatzuk ekimenean hartu dut parte. Ekimenean izena eman nuenean euskaraz ahalik eta gehien aritzeko helburua jarri nion neure buruari bai eta hizkuntzarekiko eta inguruarekiko sentsibilitatea areagotzea.

Lehenengo egunean txapa jarri, herrira jaitsi eta ohikoa ez den denda batean sartu nintzen. Dendariari, *Kaixo* esan eta berak berdin erantzun zidan. Ordura arte, agurretik at emakume hura ez dut entzun inoiz euskaraz hitz egiten. Beste bezeroekin gazteleraz entzun arren zergatik ez naiz euskaraz aritu?

Oraingoan euskaraz hitz egitea erabaki nuen. Erosketa egiteko garaian zalantza bat eduki nuen eta irribarretsu euskaraz egin nion galdera; berak poliki eta euskaraz erantzun zidan. Poz-pozik eskerrak eman nizkion.

Orduan gizon bat sartu zen; bezero ezaguna zela sumatu nuen eta beraien artean gazteleraz hitz egiten hasi ziren. Zalantza berri bat sortu zitzaidan eta orain ere euskaraz aritu nintzen. Pentsakor geratu ostean poliki euskaraz erantzuten hasi zen. Bukatu zuenean beste bezeroak harrituta hauxe esan zion gazteleraz:

– Ez nekien euskaraz hitz egiten zenuenik? Ze polita, ezta?

Estereotipoei bizkarra ematen ez badiegu, erraztasun gehiago dugunok ez bagara aritzen, ez badugu aurrean duguna behar bezala kontuan hartzen, zer espero dezakegu, zer eskatuko diegu besteei?

– Alabak badaki euskaraz, baina nire senarrak ez. Asko kostatzen zait, ez dut ondo hitz egiten.

– Ba oso ondo egiten duzula ematen du. Gizonak pozik begiratzen zion.

Orduan nik zera esan nion:

– Oso ondo hitz egiten duzu. Euskaltegirik naturalena harremanekin sortzen dena da. Gehiagotan etorriko naiz hona eta euskaraz hitz egingo dut zurekin, ados? Horrela praktikatuko dugu.

Irribarre handi bat bota zidan, ordaindu eta neu ere irribarrea ahoan joan nintzen. Joan aurretik, beste bezeroak gehiagotan euskaraz hitz egin behar zuela esan zion dendariari, ederki egiten zuela, soinu politak botatzen zituela. Hizkuntzarekin zituzten bizipenei buruz modu baikorrean hitz egiten utzi nituen. Lehen eta bigarren hitza beti egiten dut euskaraz, baina gaztelerara zenbatetan jotzen nuen ez nintzen jabetzen.

Zer gertatu zen? Aurrena, aurreiritziei ateak itxi nizkiela eta espazio txiki batean komunikatzeko eta euskaraz hitz egiteko borondatea zuten bi pertsona elkartu zirela. Estereotipoei bizkarra ematen ez badiegu, erraztasun gehiago dugunok ez bagara aritzen, ez badugu aurrean duguna behar bezala kontuan hartzen, zer espero dezakegu, zer eskatuko diegu besteei? Nola lortuko dugu pertsona horiek euskararen gramatika ikastetik euskaraz aritzeko saltoa ematea? Euskaltegiek ez dute magia egiten; magia, bizipenekin sortzen dugun horixe da. Komunikazio bide herrikoiak zabaltzen jarrai dezagun! ■

Uda euskaraz haur eta gazteentzat!
Gazteola*
Haur eta Gazteak
ekainetik aurrera Bilbo erdian!
· Tailerrak
· Campus eta udalekuak
· Euskara ikastaroak
· Barnetegiak...
www.gazteola.eus

Gerra galduak eta beste

Iñaki Murua
BERTSOLARIA

Hizkuntzan ere badira gerra galduak edo galdutzat eman ditzakegunak, eta ez gutxi! Kontua ez da galdutzat ematea, hitz horrek adiera berria duela jabetu eta onartzea ere aukera bat da.

"Erronka" hitza da horietako bat. Jatorriz, orain gutxi arte, ahoberoak edo ahozabalak zuen hitz egiteko moduari zeritzon. Handikeriaz, harrokeriaz... Zen edo zezakeen baino gehiagoren itxurak eginez ari zenari buruz, "erronka bota du " edo "erronkatik gehiago du horrek egiatik baino", esan ohi genuen. Dagoeneko, politikoak, kirolariak, enpresariak, hezitzaileak... Denak ari zaizkigu beren "erronkak" zehatz adierazten. Zenbat eta xehetasun gehiago eman, orduan eta nabarmenago "erronka!".

Beste gauza bat da, bat-batean ari zarela eta hanka sartzea, esatari lanetan ari direnen kasua lekuko. Irristadak egiteko aukerak eta egunak denak dira, aldarteak zeresan handia dauka eta. Hala ere, errepikatzen diren akatsak zuzendu behar dira, gaizki esandakoa errepikatzeak, zuzen dagoela sinestarazten baitio entzule "ezjakinari". Adibidez: egundoko euri jasak bota ditu eta lubiziak eragin; ondorioz, "etxe bat behera etorri da...". Eta ni bezalakoak, eguna joan eta eguna etorri, etxe hori berriro gora joan dela noiz entzungo, baina ez, ez da gora joaten. Ez delako behera etorri, erori egin baita edo lubiziak aurrean hartuta eraman baitu! Elur jauzi batek mendizaleak bezala; aurrean hartuta eraman, baina "ez aurretik eraman!".

Behin ba omen zeuden bi gizonezko, aldaparen hasieran, txirrindulari tropelari begira eta han pasa omen zen bietako baten semea, azkena.

Besteak bota omen zion lagunari: "Iño! Zuen semeak ere ez dik egun ederra, hor zihoak denak aurretik dituela...". Eta azkena zihoanaren aitak erantzun: "Denak aurretik dituela ez, denak aurrean hartuta. Horrek sasoia!"

Gai berari tiraka, trenbideak autoz zeharkatzen diren guneak badakigu arriskutsuak direla, baina, askotan, irratiak dioena entzunda, badirudi trenbidean autoak trenaren aurretik doazela ziztu bizian: "Trenak auto bat aurretik eraman du". A zer suertea, beti aurretik eraman badu ez zion trenak ukiturik ere egingo!

Eta trenaren hurrengo geltokia elikadura. Lehengo batean, *Dieta Mediterraneoa* aztertu duten aditu batzuek, elikagaiak ez ezik jakiak maneiatzeko erabiltzen den olioa eta ura ere aztertu zutela zioen esatariak, eta egunean lau edalontzi edan behar omen genituzkeela. Pentsa beirazkoak badira. Lau! Eta metalezkoak balira, ez dut pentsatu ere egin nahi! Guk, baserrian hazi ginenok, behi esnea edaten genuen, deskuiduan esne behia edan izan bagenu...

Eta etenik gabeko sokan: barrura sartu, gora igo, kanpora irten... Besterik egin al daiteke? ■

Zergatik molestatzen du

Itziar Bardaji Goikoetxea
IRAKASLEA

Jipoi polizial bat medio, segurtasunaren izenean, 150 bizilagun argindarrik gabe uzteak suposatzen duen karikatura, argudioaren faltsutasunak besterik ezin du azaldu. Baratzeak egiteko, hamarna eraikin erabilgarri bota nahi eta horri ekologiko etiketa atxikitzea ber irrigarria da. Ez du merezi horretan sakontzeak, hain da agerikoa. Errekaleorreko argi mozketaz mintzatzean hor geratzen denak ez dio benetako eztabaidari heldu nahi, arrazoiak arrazoi.

Bat: 230.000 etxebizitza huts dituen Hego Euskal Herrian eraikuntzak ez dio eraikin beharrari erantzuten. Sobera dakigu merkatuari, gure jainko ahalguztidunari egiten dizkiogun ofrendak direla, BPGren erorketarekin zigortu ez gaitzan. Bi: jendarte kapitalistan jabetza pribatuak sakratua izan behar du, guztiz blindatua, aberastasunaren akumulazio desorekatua mantentzea helburu. Hiru: bere esfortzu eta lan *duina*ren bidez eskuratu duelako etxea merezi duen hiritar eredugarri zintzoaren irudiaren atzean beste hau dago: bankuen eta enpresa ekoizle erraldoien etekinerako eta politikariek lapurtuko dituzten zergak ordaintzeko lanean eta kontsumoan diharduen jendarte desjabetua, modu ezberdinetan esplotatua eta alienatua. Masa horrek egunez egun klase esplotatzailea elikatu eta sistema birproduzitzen du. Eta lau, eta bost... ■

Mocoako erreakzioak

Eli Pagola *
BERTSOLARIA

(A klasekidea)

Facebook-a zabaltzean
azaldu den lehena.
Zeinen desberdina den
oraina ta lehena…
Nahiz berez den aspaldi
pasa zitekeena
horrenbeste hildako,
ze samin, ze pena.
Latza da Errusian (*)
pasa berri dena.

(*) Errusian atentatua izan zen.

(B klasekidea)

Gure anai gaztea
ez da inon ageri,
desagertuta doa
hiru egun t´erdi,
ez dakienez ezin
joan da igeri…
gajoak izan arren
zailtasun gehiegi
senak bizirik dela
esaten dit neri.

(Juan Manuel delako bat)

Ene, hegoaldean
ze tragedia, ai!
Gobernuak kontua
hurbiletik darrai,
ate denak zabalik
ditugu zuen zai,
egingo dugu gure
eskutan den zernahi,
(orain arte ez baina
gaurtik aurrera bai?)

(Bertako bat)

Gertatu berri dena
ezin dut sinetsi…
hogei urtez guardia
ez dut inoiz jetsi.
Dozena bat oilasko,
etxe eta hesi,
dena ibaian behera
joan zait ihesi.
Halako desgrazirik
ez nuen merezi.

(Orojakile bat)

Herria egonik bi
ibairen erdian
gutxi ez eta beste
baten atarian.
Betidanik egin du
euri gehiegi han
ta joera mantendu
da azken aldian…
zerbait aurreikusi
ziteken agian.

(Aktibista bat)

Mocoako erronka
ez denez makala
Gobernua aktiba
bedi berehala
erreskate taldeak
sortuz nola hala
militar, gerrilero
zein zibil bezala
aukera duen orok
lagundu dezala.

Laurehun desagertuen
bilatze jardunak,
hil diren berrehun eta
berrogei lagunak…
kontatzera bultza nau
gai-gordintasunak
sei testigantza egun
hauetan entzunak.
Lasai eska ditzala
gehio nahi ditunak.

Doinua: Itziarren semea

* Eli Pagola Energia Berriztagarrien ingeniaritzako 4. mailako ikaslea da. Kolonbiako Caquetá erregioan ikasten ari da. Martxoaren 31 eta apirilaren 1aren arteko gauean euriteek lokatzez estali zuten Mocoa herria.

berria denda

Euskal Herriko ardoa, saskira!

SOLAGÜEN ARDOAK

2011. urteko ERRESERBAko ardoa

70 € 6 botilako kutxa

2014. urteko ardo ONDUA

40 € 6 botilako kutxa

Solagüenen **Picardias** erdigozoa

36 € 6 botilako kutxa

LEZAUN ARDOAK

2011. urteko Lezaun 0,0 sulfito
(2017ko Zilarrezko Ekoardoa - Errioxa)

28 € 6 botilako kutxa

2009. urteko Lezaun Gazaga
(Nafarroako sor-markako haritz ardo onenaren saria, 2017)

40 € 6 botilako kutxa

AMEZTOI TXAKOLINDEGIA

36 € 6 botilako kutxa

TALLERI TXAKOLINDEGIA

BITXIA txakolina

39 € 6 botilako kutxa

AZPEA ARDOA

Nekazaritza ekologikoko ardoa
Haritzetan ondutako ardoa

25 € 6 botilako kutxa

K5 ARGIÑANO TXAKOLINDEGIA

K PILOTA txakolina

45 € 6 botilako kutxa

HIRUZTA TXAKOLINDEGIA

45 € 6 botilako kutxa

Eskariak egiteko azken eguna, **maiatzaren 31**.
Ekain erdialdean banatuko dira.

Eskaintza mugatua!

Osatu zure saskia!

Bidalketa gastuak **DOAN**

(0034) 943-30 43 45 • berria.eus/berrialaguna/denda/

IRITZIA

Erregimenak linfoma bat dauka Gipuzkoan

Pello Zubiria Kamino
@pellozubiria
ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Markel Olano Arrese diputatu nagusia hurbildu zenean Hernanin Oronak daukan *Ideo* eraikin futuristara Gipuzkoako euskalgintzarekin hizkuntza estrategia berria konpartitzera, dozena bat zahar aurkitu zituen atarian "Erraustegirik ez" pankarta eskuetan, Zubietako errauste plantak kaltetutako hamabi aiton-amona aspaldiko euri zaparradarik handienaren azpian blai eginda. Ez bilatu argazkia egunkarietan.

Egun gutxi beranduago Donostialdeko autobideak butxatu zituen ziento erdi bat kotxezko 'Barraskilo Operazioa'ren albisterik ere ez duzu aurkituko. Orobat Azpeitian Altuna y Uriaren egoitzan protesta alaitsua egin zuten gazteenik. Eta menturaz maiatzaren 27an Zubietan Errausketaren Aurkako Mugimenduak bildutako jende multzoaren eta mezuen oihartzunik ere ez zenuen topatuko, baldin eta Gipuzkoa Zutikeko gazte adoretsuek ez balute egun berean mila laguneko jendetza eraman –mila bai, gazteak gehienak, heldu asko, 80 urtekoren batzuk tartean– erraustegiaren '0 eremura'. *Ez etsi, ez onartu erraustegia, bakean eta irmo, #ResistZubieta*. Gazteek horrelako kemen, antolakuntza eta fundamentu irakaspena eman behar zigutenik...

Denaren jabe egin da, ustez, Gipuzkoa Garaile bataiatu zuten lobby oligarkikoa. Esku batekin PNV+PSOE+PP erregimena, onartuko al zait boterea ezartzeko formularen definiziotzat "erregimena", ez darabilt isekatzat. Bestearekin Gipuzkoako *establishment* enpresariala, zeinari bermerik postmodernoena ematen dion orain Mondragon Corporationek, bere banku, supermerkatu, industria, unibertsitate eta guzti, Arrasateko kooperatibismoaren deriba neoliberala. Erregimena guztiaren jabe eginik, zenbait arlotan "zubilanak" aipatzea bihurtu da zubiak eraikitzea baino irabazleen artera dotoreziaz igarotzea edozein zubitan barrena. Barkatu gordin mintzatzea, lagunok.

Arazo bakarra da... historia amaitutzat jo duteneko paradisu "post-gatazka" hau ez dela esajeratuki makillatutako gaixo bat baizik. Hedabide nagusi pribatu zein publiko *bananeroek* doi-doi saltzea lortzen duten Gipuzkoako oasi harrak joa. Zubietako zuloa da kantzerra azaleratzen duen koskorra.

Mundu osoa krisian eta zuek 2007 aurreko bizimodura itzultzea posible dela sinetsaraziz engainatu nahi duzue minbizi erasokorrak jotako gizartea? Zein soin atal erauzi beharko diguzue hurrena Confebaskek jarraitu dezan *business as usual*? Zein herri sakrifikatuko dugu ondoren, eskoriatarako ez bada kea salduko duen usina berri bat eraikitzeko? Nori kenduko zaizkio laguntza sozialak diru publikoen alferrikako beste obra batekin harrapatzaile pribatuak gizenagotzeko? Herritarroi zein eskubide gehiago kenduz ugarituko dizkiguzue gaixotasunak, ondoren sendaezinentzako artatze pribatu eternoak zeuok berriro kobratzeko? Zer egingo dute ezker alternatiboek podiumeko bigarren postua nork hartuko duen errezeloz elkarri markajea egiteaz gain? Ardanza-2 aro itogarri honetan herri hau Erabakitzeko Eskubidea erabiltzeko prest dagoela aldarrikatuz bagoaz norabait?

Hamar urteotan ikasi dugunarekin, zalantzarik txikiena ere ez da geratzen hondakinen kudeatzeko sistemen arteko alderaketan. Errausketa da sistema txarrena, garestiena, zikinena, kaltegarriena. Azalduta dago, Gipuzkoa erdian

EUTSI GOGOR MARTIN!
GUK ERE EGUZKI GENUKE
EL DIARIO FATXO
Inguru garbia ≠ Gure eskubideak
IT'S A COMMON FIGHT. NEVER GIVE UP

ERRAUSTEGIA

frogatuta, ez da beste misteriorik. Hala ere, lehendik lantegi kutsagarriz gainezka dagoen Donostialdean lehenbiziko erraustegi kamuflatuari –Rezola- Gipuzkoak behar ez duen bigarren erraustegi bat gehitu nahi diote, jaramonik egin gabe osasun aldetik, urgentziaz behar ditugun lanpostuetatik, bideragarritasunetik, ingurumenaren zaintzatik eta diru publikoen erabilera zuhurretik aurkeztutako oharretako bakar bati, gaur bertan azken zaborra 40.000 tonatara murriztu dezakeen gizarte bati 200.000rentzako labe kutsagarria ezarri eta pagaraziz. *Domuit Gipuzkoa* eta kito.

Azken hilabeteotako mugimendu eta deklarazioak oso oker ulertu ez baditugu, Gipuzkoako agendaren jabe den erregimenak bezala agendaren gatibu diren opositore nagusiek dagonekoz egintzat eman dute Zubietako errauste planta. Herritar asko ala gutxi izango dira etsi gabe aurrean jarriko zaizkienak? Injustizia onartzen ez dutenek gainditukо ote dituzte erregimenak ezarritako *omertà* lotsagarriaren hesiak? Gipuzkoarren jenioa esnatuko al da? ■

Martxaren helburua erraustegiaren eremura sartzea zela finkatu ostean, irizpideak eman zituzten antolatzaileek. Bananduta atera ziren hiru zutabeek goian egin zuten bat. Ertzaintzak eta segurtasun pribatuak ezin izan zuten ekidin bidean makinariari koloretako pintura botatzea. Lan eremura sartu ziren asko, beste asko kanpotik txaloka zituzten bitartean. Helburuak beteta, Zubietara itzuli ziren.

MOYUA
HILETA ZERBITZUAK
Zure momentu zailetarako
Tel.: 943783447 - 617442466
mmoyua@telefonica.net
Otadui Gotzaina kalea, 27 - Oñati

LUAarkitektoak
hirigintza
hirigintza aholkularitza
udal planak
urbanizazioak
peritazioak
balorazioak
etxebizitza proiektuak
birgaitzeak
barne diseinua...
Río Arga Kalea 28, 31014 Iruña
Tel 948 13 26 97
lua@luark.com

tradebi
EB Traducciones Itzulpenak, S. L.
tradebi@tradebi.com

Paula Tordesillas (Salva el Suelo):

"LURZORUA BABESTEN EZ BADUGU EGOERA KAOTIKOA DATOR"

Hegoi Belategi
@BelategiH
ARGAZKIAK: IÑIGO AZKONA

Lurzoruek ezinbesteko papera dute ingurumena zaintzeko orduan. Hala ere, Europan urtero 1.000 kilometro koadro inguru asfalto bihurtzen dira, egunero 500 bat futbol zelairen tamaina. Industriak, baita nekazaritza eta abeltzaintza intentsiboek ere, landa zein hiriguneetako zoruen bioaniztasuna hondatzen dituzte. Egoera irauli nahi dutenetako bat da Paula Tordesillas ingeniari agronomoa, Ekologistak Martxan elkartea Espainiako Estatuan egiten ari den *Salva el suelo* (Salbatu zorua) kanpainako koordinatzaile nagusia. Bilbon izan da lurzoruen degradazioaz hitz egiten.

LURZORUA BABESTEKO EUROPAR ARAUDI BATEN BILA

Salva el suelo kanpaina 400 bat taldek osatzen duten *People4soil* Europar Herri Ekimenaren parte da. Europako erakundeei presio eginez, lurzoruak babestuko dituen marko juridikoa lortu nahi dute. Ekimena aintzat hartu dadin, EBko milioi bat lagunen sinadurak behar dira, gutxienez zazpi estatutakoak. Kezkatuta dago Tordesillas, ordea; arrazoiak arrazoi, ez dute lortu nahiko luketen oihartzuna. Espainiako Estatuan 40.500 sinadura bildu behar dituzte iraila bukatu baino lehen; orain arte 1.800 inguru lortu dituzte.

Lurzorua aipatzen duzu, ez lurra. Zein da bien arteko ezberdintasuna?

Lurzorua hilik dagoela uste dute askok, baina guztiz kontrakoa da. Substratu bizia da eta lurzoruaren arabera, ekosistema mota ezberdinak osatzen dira. Badakigu mikroorganismo eta ornogabe mordoa bizi direla zoruan, ezinezkoa da jakitea zein konplexuak diren ekosistema horiek, oso gutxi ikertu baita haien inguruan. Baina argi dago garrantzi ekologiko handikoak direla. Zorua, ordea, hil daiteke eta hiltzen ari da. Urbanismoak, meatzaritzak, abeltzaintza intentsiboak eta industrien hondakinek deforestazioa eta higadura dakartzate.

Lurzorua babesten duen marko juridikoa aldarrikatzen duzue. Zeintzuk lirateke ezaugarriak?

Lege zehatzak baino, lurzorua ustiatzeko eredu aldaketa eskatzen dugu; lurren biologia babesteko legeak existitzen dira, baina ez dira errespetatzen. Enpresek maiz arduragabekeriaz jokatzen dute, lurra suntsituz. Aurrekontuetan ingurumena errespetatzeko neurriak zehaztu ahalko lituzkete, baina sinpleagoa da isuna ordaintzea. Kaltea ordea, ez da ekonomikoa, biologikoa baizik, lurzorua ez baita birsortzen. Ordaindu behar dute, bai, baina batez ere suntsitutakoa konpondu behar dute.

Lurzoruak bere kabuz lehenera etortzeko aukerarik badu?

Hainbat kasutan kaltea betiko da. Hala ere, naturak bere onera etortzeko gaitasuna du, baita zoruak ere. Baina eraberritze horrek urte asko behar ditu eta horixe da arazoa. Gizakion eragina hain handia eta iraunkorra denez, naturak ez du denborarik bere onera etortzeko. Lurrak bi hektarea edo bi tonako materia galera jasangarria izan dezake urtero, hau da, naturalki eraberritzeko gai izango litzateke. Abiadura geologiko hura igaro ostean, zorua bizkorrago higatzen da eraberritu baino.

Zeintzuk dira lurzoruaren aurkako mehatxurik handienak gaur egun?

Esan bezala, honela jarraituz gero lurzoruen aberastasun biologikoa galdu egingo da. Antzu bihurtuko da eta orduan bai esan ahalko dugu zorua hilda dagoela. Lurraren ugalkortasuna eten egiten badugu, produkzio kopuruaz gain, elikagaien kalitateari kalte egiten dio. Janariak geroz eta elikagai gutxiago du, ongarri kimikoak eta ura jaten dugula esan dezakegu. Elikadura osasuna da, hortaz horixe da jokoan duguna.

Lursailen ekosistema aldaketa bortitzak ere arazo bihurtu dira. Abeltzaintzarako erabiltzen den soroa baratze bihurtzeak lurzoruko mikroorganismoak ahuldu ditzake. Lurra erabiltzeko modua aldatzea beti da kaltegarria, bat -batean egiten bada. Zoru ekosistema bakoitzak ezaugarri jakin batzuk lortzen ditu urte askoren buruan. Egokitzeko denborarik eman ezean geroz eta antzuagoa izango da.

Zein eragin izaten ari da klima aldaketa?

Hainbat modutan eragiten dio, baina kezkagarriena euriteen aldaketa da. Jakina da euriteen maiztasuna urritzen ari dela leku askotan; euria egiten duenean ordea, gogotik botatzen du tarte txikian. Mikroorganismo gehienak azalean bizi dira, eta gizakien esku hartzeak agerian uzten ditu gainera. Zaparradek beraz, zoruko bioaniztasuna eramaten dute.

Nola eragiten dio lurzoruari gehiegizko urbanismoak?

Landa lurretan eraikitzeko hiru irizpide jarraitu behar dira. Hasteko, noski, lursaila eraiki gabe egotea. Landa eremua garatzea izan behar du helburu eta kokalekua ezinbestekoa dela frogatu behar da. Horiek dira baldintzak, baina nola neurtzen da zer den landa garapena? Interpretazio ezberdinak egon daitezke. Ingurumenerako eskualde batzordeetan geroz eta ordezkari ekologista gutxiago daude, ikuspegi hirigilea gailentzen ari da.

Europan urtero 1.000 kilometro koadro lurzoru bihurtzen da asfalto, 500 futbol zelai inguru egunean.
ARGAZKIA: CODY MARTIN

Kutsadurak ere ez du lagunduko.
Kutsadurarekin antzekoa gertatzen da, legeak badira baina ez dira errespetatzen eta lurzorua ez da behar bezala zaintzen. Jende gutxik daki lurzorua, ongi kudeatuta, klima aldaketaren kontrako gakoetako bat izan daitekeela. Klima aldaketaren konponbideetako bat zapaltzen dugun lurzoruan dago. Gaur egun, lurzoru higatuek CO2 isurtzen dute; ekosistemak zainduz gero, isuri ordez CO2a bilduko luke zoruak, zuhaitzek egiten duten bezala. Nekazaritza goldaketak lurzoruaren higaduran zerikusia duelakoan, alternatibak proposatu dira. Hala ere, tentuz ibili behar da, alternatiba horiek herbizidak dira-eta, ez litzateke harritzekoa kanpaina horien atzetik industria petrokimikoaren interesak egotea.

Landa lurrei buruz ari zara, zein da egoera hiriguneetan?
Antzekoa da, berez badira plan ugari lurzoruak zaintzeko, baina praktikan oso gutxi aurreratzen da. Hiri askok dute konposta helmugatzat, lurrak biziberritzeko asmoz. Erakundeek, ordea, ez dute ingurumen hezkuntzarik bultzatzen, ezta sustapen neurririk hartzen. Hirietan batez ere plastiko eta beiren birziklapena sustatzen dira. Ongi dago, baina horien atzean ere etekin ekonomikoak daude, Ecoembes enpresarenak adibidez.

> "Lurren biologia babesteko legeak existitzen dira, baina ez dira errespetatzen"

> "Lurzorua, ongi kudeatuta, klima aldaketaren kontrako gakoetako bat izan daiteke"

> "Europako lurrak erabat higatu direnean hegoaldeko herrialdeetako lurrak inbaditzen hasiko dira enpresa transnazionalak. Prozesua jada abian da"

Duela gutxi Mokoan (Kolonbia) 328 lagun hil ziren, eta 69 desagertu, luizi baten ondorioz. Aditu askok urbanismo eta basoen soiltzeari egotzi diete neurri batean.
Ez ditut Mokoako ezaugarriak ezagutzen, baina ez dago zertan hain urrun joan. Euskal Herriko mendi askotako magalek geroz eta pisu handiagoa jasaten dute, makinaria astunarekin eraikitzen dela eta. Magalak erabat pitzatuta daude, horren ondorioz luiziak gertatzen dira.

Gauzak aldatu ezean, zer egoeratan izango dira lurzoruak urte batzuk barru?
Europaren eta mendebaldearen kasuan, oro har, lurrak erabat higatu direnean hegoaldeko herrialdeetako lurrak inbaditzen hasiko dira enpresa transnazionalak, besterik gabe. Prozesua jada abian da. Espainiaren kasua eredugarria da, Europako baratzea da, bai, baina urte batzuk barru Marokora mugitzen hasiko dira. Nekazariak geroz eta gutxiago diren heinean, transnazionalek geroz eta lur zabalagoak okupatzen dituzte, eta lurraren higadura azkartzen dute. Nekazaritza enpresen esku badago, ezinezkoa da elikadura burujabetza eraikitzea. Elikatzea luxu bihurtuko da eta ez eskubidea, gainera produktu kimikoetan oinarritutako elikadura izango da. Lurzorua babesten ez badugu egoera kaotikoa dator. ■

Macronek VI. Errepublikaren bidean jar lezake Frantzia

Frantziako Asanblea Nazionalerako bozak izanen dira ekainaren 11n eta 18an; hauteskunde legegileak. Inkognita bat dago oroz gainetik: Emmanuel Macronek Gobernuan lortu duen botere kontzentrazioak ekarriko al dio Legebiltzarreko gehiengoaren sostengua? 557 diputatu hautatuko dira. Anartean, Manchesterreko atentatuak bozen inguruko gaiak uxatu ditu hedabideetatik, juxtu kanpaina ofiziala hastear zenean. Halaber, Britainia Handiko hauteskunde legegileak dira ekainaren 8an. Seguritatea berebiziko gaia bilakatu da Europako estatuetako hauteskunde kanpainetan.

Mikel Asurmendi
@masurmendi

"Ziurgabetasuna" da Frantziako solastoki politikoetan gailendu den hitza. Hexagonoa hauteskunde giroan murgilduta dago iragan udaz geroztik eta kanpaina guztietan "*incertitude*" hitza errepikatu da behin eta berriz. Emmanuel Macron presidenteak Les Républicainseko (LR) kide Edouard Philippe lehen ministroa eta gobernu berria izendatu ostean, galdera ugari dira airean. Lehenbizikoa hauxe: nola eragingo du Legebiltzar Nazionalaren osaketak gobernu berriaren politikan?

"Erreforma" da Macronen hitzaldietako hitz nagusia. Gobernu berriko –MoDem alderdi zentristako– François Bayrou justizia ministroak horretarako "politika birmoralizatu beharra" gogorarazi dio. Macronek agindutako "moraltasunaren aldeko lege berria" eginkizun nagusietako bat da. Ezbairik gabe, gobernu berriak deontologia politikoa landu beharko du, baldin eta Macronek agindutako aldaketak beteko baditu. Lan erreforma, fiskalitatearen berrikuntzak, hezkuntza arloko aldaketak, segurtasuna eta Europarekiko elkarkidetasuna dira presidenteak berritu beharko dituen esparruak, baldin eta politika egiteko modu berria ekarriko badu Frantziako politikagintzara.

Konparazionera, egungo Lanaren legea, El Khomri legea deitua ere, 2016an ezarri zen, Manuel Valls lehen ministroa zelarik eta Myriam El Khomri Lan ministroa izaki. Aurreko gobernuaren arabera, "legea berritu zen lanaren eskubidea eta askatasun esparrua zabaldu aldera, baita enpresa eta lan esparruko eragileak babesteko ere". Macronek Ekonomia ministro kargua utzia zuen ordurako, nonbait, legea ez zuen begi onez ikusi, baina legea horren liberala izanda, inor gutxik uste du egungo legea bere tesietatik urrun dagoenik. Edonola ere, Hollande presidentearen gobernuak ez zuen enplegu arlora espero zituen emaitzak ekarri, aldiz, legeak sindikatuen eta langileriaren kritikak jaso ditu. Bien bitartean, Macronek ez dio Hollanderen bosturteko mandatuari onespena eman, hori Eliseoko balizko teilatu berriari harriak botatzea bailitzateke.

Ezkerra ofizialetik harago dauden ezkertiarren ikuspegitik, "Macron lan erreforma egitera behartuta dago gobernu berria itxuratzeko, baina funtsean, bere lege berriak ere ez luke ekarriko lan mundua berregituratzeko behar den aldaketa sakona". Fiskalitatearen erreformari dagokionez, presidenteak *Taxe d'habitation* delakoa (Etxearen zerga) kenduko zuela agindu zuen kanpaina garaian. Agindu bai, besterik da gauzatzea. Erreforma horren aplikazioak hainbat oztopo aurkitu ditu dagoneko. Hots, ez dago zehazturik noiz hasiko den aplikatzen. Zein adineko zergaduni? Zergadun guztientzat berdin?

Edonola ere, Estatu Islamistak (EI) Manchesterren egindako sarraskiak seguritatearen gaia ekarri du eztabaida politikoaren lehen lerrora berriz ere. Hauteskunde legegileen kanpaina ofiziala hastear zegoenean, Macron presidentea, Edouard Philippe lehen ministro eta, kanpo harremanetarako eta Europarako ministro Jean-Yves Le Drianek bete dituzte hedabideetako lehen lerroburuak eta egunkarietako orrialdeak. Ekainaren 8an hauteskunde legegileak izanen dira Britainia Handian. Theresa May lehen ministroak "Erresuma Batua terrorismotik babesteko" neurri berriak iragarri ditu. Bretainia Handian abian da *Brexit* delakoa, alta, seguritate gaiak Europako estatu guztiak batzen ditu. Izan ere, atentatuak britaniar gobernu eskuindarra "indartu" du datozen hauteskundeen aurrean. Frantzian ere, halako atentatu bat jasotzearen beldurra ze-

» Estatu Islamistak (EI) Manchesterren egindako sarraskiak seguritatearen gaia ekarri du eztabaida politikoaren lehen lerrora berriz ere

Emmanuel Macron presidentea, Edouard Philippe lehen ministroa eta Kanpo harremanetarako eta Europarako ministro Jean-Ives Le Drian, Manchesterreko atentatua ezagutu berri.

goen aspaldion, bertan horrelako atentatua izan gabe ere antzeko ondorioa atera daiteke. Fronte Nazionaleko (FN) Marine Le Penek altxatu du ahots disonante bakarra: "Frantzian ez da deus seriosik egin terrorismo jihadistaren aurka".

Hedabideez harago, kanpaina kalean dago zernahi gisaz. Hautagaiak tokian tokiko arrondizamendu edo barrutietan ari dira. 557 diputatu izendatuko dira. Marine Le Penen Fronte Nazionala ez da Errepublikanoak Martxan alderdiaren arerio nagusia. Boz presidentzialetan ez zen K.O. gelditu, baina puntutan galdu zuen. Gainera, bozen sistemak ez du laguntzen FN. Hautagaitza guztiek diputaturen bat lortzeko aukera "zapuztuko" diote bigarren itzulian. Diputatu edo senatari bat lortzeko LR da FNren arerio nagusia.

LR ahul dago halere. Bere hogei diputatuk begi onez ikusi dute Philippen izendapena. Bordeleko auzapeza Alain Juppe da (Juppe eta Philippe ildo berekoak dira LRn) indarrez eta nortasunez LR ordezkatu dezakeena. Oraingoz, ez da LRko inor Errepublikanoak Martxanen zerrendetan. Jupperekin batera, LRko buru esanguratsu den François Baroinek dioenez, Macronek LRko hainbat kide bahitu ditu, baina ez du "gerra" irabaziko. LRek Macronen "erasoaldiari" eutsi nahi dio, lehen rounda ekaineko lehen itzulian jokatuko da.

PSko kideak ere badira gobernu berrian. Lyongo auzapez eta barne ministro Gerard Collomb ez da edonor. Macronek K.O. utzi du Alderdi Sozialista. Hollandek eta Vallsek Macroni lagundu diote zeregin horretan. Benoît Hamon da PSko ikur bakarra. Argia ematera deitua izan zen, baina itzalpean geratu da. PSko 24 diputatu Errepublikanoak Martxaneko zerrendetan daude. Honek 428 diputatugairen izenak aurkeztu ditu.

Le Pen ez da arerio sendoa eta LR kolokan dago. Frantzia Intsumisoaren Jean-Luc Mélenchonek Marseillako barrutian aurkeztu du bere burua. Hau da, FNren plaza nagusietako batean. Ez da alderdien liderren arteko norgehiagoka bakarra. Adibidez, Benoît Hamonek PCko hautagai Michel Nouaille sostengatu du Essoneko 1. barrutian, Manuel Vallsen aurka. Era berean, Hamonek Caroline De Haas hautagai feminista sostengatzen du Parisen, lan ministro ohi eta PSko Myriam El Khomri hautagairen aurka. Areago, EELV ekologistek eta PCFk ere De Haas sostengatzen dute.

Frantzia Intsumisoa da Errepublikanoak Martxanen arerio nagusia. Mélenchonek ez omen du bere hautagaiak engainatu nahi. PCFrekin zuen aliantza bertan behera utzi du. "Presidentzialetarako gure programa ukitu gabe mantenduko dugu, ez dugu boza eman digun inor traizionatuko". PCFk programako hainbat gai "apalarazi" nahi zituen.

Frantziak IV. Errepublika garaiko egoera bizi du. Europar Batasunaren proiektua orduan jarri zen martxan. Frantzia II. Mundu Gerra eta Algeriako Gerraren krisitik atera berria zen. NATOren barruko aliantzak finkatu behar izan zituen, besteak beste. Egonkortasunik gabeko egoera haren ondoren sortu zen V. Errepublika, Charles de Gaullek gidatua. V. Errepublika larrialdian dago egun, eta Macronek VI. Errepublikaren bidean jar lezake Frantzia. Horrek baina, erreformez harago, Konstituzioaren erreforma beharko luke. Horretarako, Macronek Frantziako Legebiltzarraren gehiengoaren sostengua beharko luke. Gobernuan lortu duen botere kontzentrazioa berresteko eta berak aldarrikatzen duen Frantzia berria martxan jartzeko. ■

Bidane Petralanda

“MEDIKU ZIRKUITUEN BIDEZ LOR DAITEKE LEHENETSITAKO HIZKUNTZAN ARRETA JASOTZEA”

Bidane Petralanda Mendiola EHUko Medikuntzako ikasleak gradu amaierako lana martxoan bukatu zuen: *Osasun profesionalaren eta pazientearen arteko hizkuntza-mugei aurre egiteko euskarazko asistentzia zirkuituen esperientzia*. Osasungintza eta euskara lotzen dituen lehenengo lana da. Ikerketa Dublinen aurkeztu berri du, osasun arreta integratuaren inguruko konferentzian.

TESTUA ETA ARGAZKIA:
Ainhoa Ortega Bretos
@ob_ainhoa

Zer dira hizkuntza-mugak?
Hizkuntza bera hitz egiten ez duten bi pertsonen arteko komunikazio arazoak dira, edo hizkuntza bera hitz egin arren maila desberdinetan kontrolatzen duten bi pertsonen arteko komunikazio arazoak.

Zer nolako eragina dute pazienteengan?
Lehenik eta behin, legalki eragina dute Euskal Autonomia Erkidegoan. Bertako biztanle garenok eskubidea daukagu euskarazko tratua jasotzeko, eta ez da bermatzen. Paziente erdaldun baten eskubideak euskaldun batenak baino gehiago errespetatzen dira.

Horrez gain, arazo klinikoak eragin ditzakete. Elkarri ondo ulertu barik ezin dira praktika kliniko seguruak egin.

Ama hizkuntzan ez mintzatzeak deserosotasuna eragin dezake, bestelako hizkuntzak behar bezala ulertu arren. Eroso sentitzen ez den pazienteak ez du konfiantzaz kontatuko gertatzen zaiona, eta gauza batzuk azaldu barik utziko ditu. Elkarrizketa egokia izateko arazoak badaude, diagnostikoa desegokia izan daiteke.

Azken batean, hizkuntza-mugek pazientearentzat arriskutsuak diren gertaerak eragin ditzakete, bere gogobetetzea nabarmen jaisten dute, eta oztopo dira kalitatezko osasun arreta eskaintzeko orduan.

Zertan datza kalitatezko osasun arreta?
Kalitatezko zerbitzua eskaintzeko pazientearen ongizate fisiko, biologiko eta soziala bermatu behar da. Pazienteak izan behar du oinarria, ez medikuak. Oso garrantzitsua da pazientearen ezaugarriak kontuan hartzea: adina, sexua, lanbidea, eta abar. Berak lehenetsitako hizkuntza kontuan hartzen ez bada, ez da kontuan hartzen bere ezaugarrietako bat. Harreman estua dago kalitatezko osasun arretaren eta hizkuntzaren artean.

Orduan, kalitatea bermatzeko ezinbestekoa da hizkuntza-mugei aurre egitea. Zeintzuk dira horretarako oztopoak?
Batez ere kostu ekonomikoa. Ikastaroak, interpreteak, eta abar ordaintzeko dirua behar da. Hala ere, ez dago hizkuntza-mugekin lotutako gastu ekonomikoaren ikerketa nahikorik. Itzultzaileen prestakuntza ere aipatzen du Galesko unibertsitatean egindako ikerketa batek oztopo modura, eta osasun langileen denbora falta.

Osakidetzak II. Euskara Planean proposatzen dituen euskarazko asistentzia-zirkuituak aztertu dituzu. Zer dira zirkuitu horiek?
Paziente batek, gai jakin bategatik, tratamendua amaitu arte kontsultatu behar dituen familiako mediku eta espezialista denek osatzen dute zirkuitua. Gaur egun egiten dena zera da, familiako medikuak ikusten duenean pazienteak espezialista batengana jo behar duela hitzordua ematen dio, espezialistak ahal duen egunean. Euskarazko asistentzia-zirkuituan identifikatu egiten dira euskarazko tratua nahi duten pazienteak eta euskarazko tratua emateko gai diren osasun profesionalak. Horren ostean, euskarazko agenda irekitzen da. Familiako medikuak pazientea espezialistarengana bidali behar duenean, euskarazko kontsulta dagoen egunean jarriko dio hitzordua. Antolakuntza kontua da.

"Estraofizialki ari diren bi euskarazko arreta-zirkuitu ezagutu ditut, bata Arrasaten eta bestea Gasteizen. Osakidetzaren inongo jarraipenik ez dute, eta esango nuke ez dagoela besterik".

II. Euskara Plana onartu eta lau urtera, nola dabil zirkuitu sistema?

Ofizialki ez dago asistentzia-zirkuitu sistema bat bera ere. Paziente eta osasun profesional askok ez dute sistema ezagutzen. Aldiz, estraofizialki ari diren bi zirkuitu ezagutu ditut, Osakidetzaren inongo jarraipenik ez dutenak, eta esango nuke ez dagoela besterik. Nik aztertu ditudanak Arrasateko ESIko Urologia zerbitzukoa eta Gasteizko ESIko Haur Urologia zerbitzukoa dira, eta arduraduna mediku bera da bietan, Egoitz Tolosa. Familiako medikuak pisu handia dauka sistemaren funtzionamenduan, kontsulta-orrian adierazita utzi behar baitu pazienteak euskarazko tratua jaso nahi duela. Horrela egiten badu, adibide honetan Tolosarengana bideratuko luke pazientea, eta ez gainerako urologoengana.

Hala ere, ez dira zirkuitu osoak, Urologia zerbitzuan baino ez delako egiten.

Asistentzia-zirkuiturik ez duten zerbitzu bi ere aztertu dituzu, eta zirkuitu sistema erabiltzen dutenekin alderatu. Zein desberdintasun daude bien artean?

Zirkuituari esker jakin daiteke zenbat jendek nahi duen euskarazko tratua eta zenbatek ez, eta zenbat kontsulta egiten diren benetan euskaraz. Gogobetetzeari dagokionez ere, gauza bera. Zirkuitudun zerbitzuetan badakigu zenbat jende dagoen pozik sistemarekin, zerbitzu hori ez dagoen lekuetan ez.

Garrantzitsua da baita ere jakitea zenbat mediku euskaldun behar diren, eta sistema horren bidez lortu daiteke datu hori. Arrasaten, adibidez, ikusi da eskaera eskaintza baino handiagoa dela. Horrek neurriak hartzen lagundu dezake.

Horrez gain, niretzat esanguratsuena izan da ohartzea euskaraz hitz egiteko gai diren mediku gehiago daudela aztertu ditudan zirkuiturik gabeko zerbitzuetan zirkuitudunetan baino. Horrek esan nahi du, mediku euskalduna egoteak ez duela bermatzen mediku-paziente harremana euskaraz izango denik. Zirkuituetan, ostera, bermatuta dago euskarazko asistentzia.

Euskarazko arreta bermatuta dago bi zirkuitu horietan, baina erakundeen jarraipenik ez dutela esan duzu.

Momentuz behintzat ez, eta ondorioz informazio gabezia dugu. Ezin dugu ziur jakin lehen mailako arretako paziente guztiei euskarazko arreta jaso dezaketela azaldu zaienik eskaintza aktibo bidez.

Osakidetzak zirkuituak martxan jartzeko eta jarraipena egiteko borondate handiagoa erakutsiko balu, posible litzateke osasun profesionalen eta pazienteen arteko hizkuntza-mugei aurre egitea?

Nire ustez, bai. Hizkuntza-muga guzti-guztiei agian ez. Baina orokorrean, mediku kontsultetan, nik uste dut posible izango litzatekeela denok lehenetsitako hizkuntzan (EAEn ofizialak diren bietan, behintzat) arreta jasotzea.

Borondate handia behar da, baina ez dut uste medikuen lana hau izan behar denik, goitik irten beharko litzateke, beste gauza batzuk ateratzen diren moduan. Hala ere, administrazioan ez diote garrantzi handirik ematen, ez da euren lehentasuna. ■

BABESLEA: **IBARRAKO UDALA**

IBARRAKO udala

I barra-barra EUSKARAZ

San Bartolome plaza, 2
20400 Ibarra
www.ibarra.eus
EUSKARA ZERBITZUA:
✆ 943 673 827

Eulàlia Reguant, CUPeko diputatua

“ERREFERENDUMIK EZ BADAGO LEGEALDI HONEK EZ DU ZENTZURIK”

2015eko irailaren 27ko hauteskundeetatik CUPeko diputatua da Eulàlia Reguant (Bartzelona, 1979) matematikari, aktibista eta finantza etikoetan aditua. Alderdi politikoekin lotura organikorik ez duten mugimenduen defendatzailea izanik, Kataluniako gobernura sartu aurretik, politikan baino, gizarte mugimenduan nabarmendu da bere ibilbidea. Kataluniako Parlamentuan elkartu gara.

Saioa Baleztena
@SaioB
ARGAZKIAK: JORDI BORRÀS

2015ean politikan murgildu zinen baina Matematikan lizentziaduna zara. Noiz politizatu zinen?

Bitxia dirudien arren, unibertsitate garaian. Tira, politikarekiko interesa betidanik izan dudala esango nuke, baina unibertsitate garaiko ikasle mugimenduan parte hartu izana garrantzitsua izan zen. Orduan hartu nituen kontzientzia eta inplikazio handiagoak.

Dirudiena baino gertuago al daude matematikak politikatik?

Nire aurreko belaunaldian izan dira matematika ikasketak izanik politikan aritu direnak. Edozein modutan, nire fakultatean behintzat, ikasle mugimendua bereziki sendoa zen. Betiko logiketatik ateratzea aberasgarria ikusten dut, politika berez baita zeharkakoa, eta mundu honetan aritzeko ez duzu zertan izan zientzia politikoetan, zuzenbidean edo filologian aditua.

Ikasle mugimenduetan bai, baina, ezker independentistan ez duzu sekula militatu. Zergatik?

Gizarte mugimenduetatik natorrelako. Betidanik ulertu izan dut batasun ideologikotik haratago, ezinbestekoak direla alderdi politikoekin lotura organikorik ez duten mugimenduak. Garrantzitsua da bereizketa hori egitea. Ni erosoago sentitzen nintzen gizarte mugimenduetan.

Zeintzuk dira zure erreferente politikoak?

Nire ibilbidean erreferente askok izan dute eragina. Horietako bat izan da Arcadi Oliveres, Kataluniaren eraldaketarako egin zuen apustu politikoagatik eta konpromisoa ulertzeko duen moduagatik. Asko ikasi dut berarekin. Beste erreferenteetako bat izan da Chico Whitaker brasildarra, Munduko Gizarte Foroaren sortzailea, besteak beste. Eta azkenik, Érik Toussaint aipatuko nuke, herrialde txiroen zorraren inguruko pentsalaria, haren ikusmoldea gakoa izan da niretzat. Kataluniatik abiatuta mundu zabalerantz, hiru horiek izan dira azpimarragarrienak, seguruenik.

Oinarrizko kristau mugimenduetatik zatoz.

Parrokiatik edaten duen familian koxkortu nintzen eta, beraz, kristautasunarekin dudan lotura, familiatik dator. Horregatik, seguruenik, unibertsitate garaian oinarrizko kristau mugimenduetan eta gogoeta zein pentsamendu kritikoen mugimenduetan murgildu nintzen. Ez hainbeste katolikoak, baina bai kristauak. Bizipen horiek gaur egun, politikan konpromisoa hartzeko moduan eragiten didatela esango nuke. Eta esperientzia hark, nolabait bultzatu zidan naizenarekin, bizitokiarekin eta sentitzen dudanarekin sustraituta egotera.

Badago uste duenik ezkertiarra eta kristaua izatea kontraerrana dela. Zuri aldiz, amorrua ematen omen dizu eskuindarrak katolikoak direla esateak. Zergatik?

Erabateko kontraesana delako. Eliza katolikoa, mendeetan barna, eraiki den bezala eraiki da, baina Elizaren ikusmoldearen sorrera erabat kontrakoa da ideologia eskuindarrarekiko. Une

historiko batean boterea eta Eliza Katolikoa gauza bera bilakatu ziren. Baina, era berean, nik kristautasunaz edan dudana da, erlijioa bizitzeko eta konpromisoa ulertzeko modu bat, eskuindarra izan eta pribilegioak babesteaz oso bestelakoa.

Hala ere, kristau izateari aitortzen zaio sarri Elizaren logikan parte hartzeko beharra. Nola kudeatzen duzu zuk dikotomia hau?

Boteredunek azaldu dute, beti, euren historiaren kontakizuna. Eliza Katolikoak –erakundeak– botere ukaezina du eta bere kontakizuna zabaldu du, han eta hemen, mendeetan barna. Baina era berean, oinarrizko kristautasunetik datozen ezin konta ahala lagun isilduak izan dira Elizatik urruti egoteagatik. Azken finean, homogeneotasuna saltzeko joera dago eta arauetatik ateratzen garenak baztertuak izaten gara. Besterik gabe, Eliza Katolikoaren erakundetik urruntzen garen kristauok ez dugu paparra ateratzen. Ez dugu horren beharrik.

Itzul gaitezen zure ibilbidera. 2015ean Bartzelonako Udaleko hauteskundeetan laugarrena zinen CUPen zerrendan. Hiru sartu eta zu kanpoan geratu zinen, eta hilabete gutxira Parlamentuan sartu zinen. Nola joan dira bi urte hauek?

Alde batetik, denbora oso azkar pasa da, baina bestetik, oso motel. Egia esan, ez dut gehiegi pentsatu, baina seguruenik egoera oso desberdina izango zen Bartzelonako Udaleko zinegotzia izango banintz. Parlamentuaren ikusgarritasuna handiagoa da.

Fiare banku etikoan aktibista izatetik Parlamentuko aurrekontuak negoziatzera pasa zinen. Erakunde publikoetan ba al dago etikarik?

Inolaz ere ez. Ez behintzat nik etika ulertzen dudan moduan. Kasu, hein batean bagenekien instituzioak hainbat elitek altxa dituztela helburu bakarrarekin: pribilegioak mantentzea. Eta gero, erakunde publikoak mantendu dituztenak izan dira logika horretan murgildu direnak. Baina sistema antzerki hutsa den munstroa da. Horregatik, etikak hemen ez du tokirik. Dena neurtzen da hurrengo hauteskundeei begira.

CUPek orain, instituzioen parte izanik, sistemaren muina aldatzeko gaitasunik ba al du?

Instituzioak aldatu daitezke kaleko jendea bizirik dagoen bitartean. Eta zoritxarrez, gaurko arazo nagusia da kaleko jendeak erakundeen esku utzi duela ardura guztia. CUP bezalako indar politiko bakar batek ezingo du etxea eraldatu. Azken finean, instituzioak dira status quo batek sortutako status quoa.

Kostata, baina, onartu zenituzten aurrekontuak. Erabakiarekin pozik zaudete?

Guk aurrekontuak onartu genituen xantaia zentzugabe baten ondoren. Arrazoi taktikoengatik erabaki genuen aurrera jarraitu eta gizartearen aldarrikapenaren alde arraun egitea. Gerora izan dugun sentsazioa da, bazegoela jendea interesa zuena guk aurrekontuak ez onartzeko, hala balitz, erreferenduma ez luketelako antolatu beharko. Beste era batera esanda, mesede bat egingo

genien. Are gehiago, onartu ez genituen arte, ezer gutxi egin zen erreferendumaren alde. Orain luzapeneko denboran gaude, gero eta denbora gutxiago geratzen da eta urratsek oso motelak izaten jarraitzen dute. Beraz, arduratuta gaude egoerarekin.

Erreferendumaren jarraipen batzorde bat sortzea proposatzen duzue, eta ERCek ideia begi onez ikusten du. Nolakoa litzateke?

Antzeko proposamen bat ere egin zuen aspaldi ANC Biltzar Nazional Katalanak, oker ez banago. Jarraipen batzordea funtsezkoa da, erreferendumaren alde dagoen orok parte hartu ahal izango duelako. Baita *Comú*-ko lagunek ere. Batzuetan badirudi Kataluniako Gobernua Espainiakoa baino maltzurragoa izaten saiatzen dela, eta joera dago gordeka ibiltzeko, "badaezpada". Baina Estatuak indar osoa du eta engainatzea zaila izango da. Beraz, egin behar duguna da, jarraipen batzorde hau antolatu, etorriko denaren mailan egoteko. Maiatzean gaude eta bada garaia jendea mobilizatuta egoteko. Baina, zoritxarrez, agertoki horretatik urruti gaude, oraindik ez baitakigu erreferenduma noiz izango den.

Gizarte mugimendua itzalita dagoela erraten da. Ados zaude?

» "Eliza Katolikoaren erakundetik urruntzen garen kristauok ez dugu paparra ateratzen. Ez dugu horren beharrik"

» "Bazegoen jendea interesa zuena guk aurrekontuak ez onartzeko, hala balitz, erreferenduma ez luketelako antolatu beharko"

» "Maiatzean gaude eta bada garaia jendea mobilizatuta egoteko"

Begi bistakoa da gizarte mugimenduak irailaren 27ko hauteskundeen ondotik Parlamentuaren esku utzi zuela borroka. Eta gertakari hori oso arriskutsua da, honaino iritsi garelako gizarte zibilari eta kaleko mugimenduari esker. Mobilizazioak ezinbestekoak dira gobernuari bultzada emateko, baina, batez ere, erreferenduma babesteko. Bestela, gobernuen arteko talka dirudi honek. Eta hilabete hauetan guztietan Espainiako Gobernuak beldurraren taktika erabiliko du, mehatxuak eta inputazioak. Hori saihesteko modu bakarra da Kataluniako Gobernuak hitzartutako urratsak betetzea eta, noski, kaleko jendearen aldarrikapenek etenik ez izatea. Ohiz kanpoko testuinguru politikoaren mailako klima mantendu behar dugu.

Duela hainbat aste adierazi zenuten erreferendumik ez badago CUPek Parlamentua utziko zuela…

Tira, aurrekontuak onartu ahal izateko gure lehentasunei uko egin genien. Bi boto eman genituen iraila bitarteko epea finkatuz. Eta noski, hori betetzen ez bada, CUPek legealdia bukatutzat emango du. Erreferendumik ez badago legealdi honek ez du zentzurik. Hori bai, guk ez dugu B planik aurreikusten. Gu lanean ari gara irailaren amaiera baino lehenago Kataluniako gizarteak erreferendumean bozkatzeko. ■

CIDEN EZPATA MARTZILLAN

Nagore Irazustabarrena Uranga
@irazustabarrena

Ustezko Tizona, Rodrigo Díaz de Vivar Ciden ezpata, mende luzez Martzillako gazteluan gordeta egon zena. Benetako Tizona dela dioen frogarik ez badago ere, Gaztela-Leóngo Juntak, 1,6 milioi ordaindu zizkion Faltzesko markesari ezpataren truke.

Valentzia, 1094. Rodrigo Díaz de Vivar *Cid*-ek hiria hartu zuen eta zeregin horretan Tizona izeneko ezpata kendu zion Marokoko Bucar erregeari. Horixe dio behintzat *Mío Cid*-en eresiak. Cidek haren suhiei, Carrióngo infanteei oparitu zion arma, gero berreskuratzeko eta, azkenik, Pedro Bermúdez ilobari eman omen zion. Hor galdu zen ezpataren arrastoa.

Mende batzuk geroago ustezko Tizona Errege-Erregina Katolikoen esku zegoen. Pierres Peralta Ezpeleta kondestable agaramontarrak (1421-1492) errege-erreginen ezkontzaren aldeko negoziazioetan lan handia egin zuen eta, horregatik, Fernando Katolikoak ezpata hura, *Io soi Tisona* hitzak grabatuta dauzkana, eman zion opari. Ezpataren jabe berria, Leringo I. kondea, Martzillako baroia eta Faltzesko lehen markesa izango zenaren aitona zen eta, hala, ezpata mitikoa Martzillako gazteluan gorde zuten. Hantxe egon zen XX. mendera arte, Espainiako Gerra Zibila arte, zehazki.

Kolpistentzat Espainiaren iragan loriatsuaren sinboloa zen Tizona eta, horregatik, Nafarroatik atera eta Madrilgo Ejertzitoaren Museora eraman zuten frankistek. 1975ean Franco hil ondoren, ezpata Faltzesko markesari –Peraltaren oinordekoari– itzuli zioten eta hura Espainiako Kultura Ministerioari saltzen ahalegindu zen. Baina ministerioak pieza erosteari uko egin zion, Rodrigo Díaz de Vivarren benetako ezpata zela baieztatuko zuen frogarik ez zegoela argudiatuz.

78,5 zentimetro luze eta 4,5 zentimetro zabal den ezpata xehe aztertu dute adituek, eta orria kalitate onekoa eta Ciden garaikoa dela diote (egun duen ezpata-burua berriagoa da, XV. mendean ipini zioten). Beraz, mendetan Martzillako gazteluan egondako ezpata benetako Tizona izan daitekeela diote, baina horren behin betiko frogarik ez da sekula aurkitu. Gainera, beste Tizona batzuk ere azaldu edo aipatu izan dira hainbat dokumentutan.

Eta, hala ere, Gaztela-Leóngo Juntak 2003. urtean 1,6 milioi euroren truke erosi zion ezpata markesari. ■

Domingotarrei esaten zieten jakobino

XIII. mendean domingotarrek komentu bat fundatu zuten Parisko Saint Jacques elizaren alboan, izen bereko kalean. Ordena erlijiosoak hirian zuen lehen egoitza zen eta, hala, pixkanaka, fraile domingotarrei jakobino esaten hasi ziren.

1789ko urrian, Frantziako Iraultzaren ordezkari muturrekoenak domingotarren beste komentu bat, Saint Honoré kalekoa (irudian), hasi ziren erabiltzen bilgune gisa. Egoitza 1794ko uztailean itxiarazi zuten; beraz, bost urtez ere ez zuen iraun. Baina tarte hura nahikoa izan zen talde politikoari jakobino ezizena jartzeko eta haiek, azkenean, izena ofizialki hartzeko. Egun, jakobinismoa jarrera politiko erradikalaren sinonimoa da. ■

Lorez lore

TESTUA ETA ARGAZKIA:
Jakoba Errekondo
jakoba@bizibaratzea.eus

Hirusta gorria (Trifolium pratense).

Izan ere, lorez lore gabiltza; egunero lore berri bat ikus daiteke sasoi honetan. Tartean, baita jan daitezkeenak ere. Ez gara euskaldunak lorezale amorratuak; kunplimenduak eta ele ederrak bai, baina lore-loreak tamainan! Orburua (*Cynara scolymus*) eta kuiatxoa (*Cucurbita pepo* var. *pepo*) bai, loretan jaten ditugu, baina gure ahosabaiaren onerako: dasta berri mordoa dugu inguruan, dastatu zain. Jan ditzagun loreak: usaina, ukia, zaporea... Hona saskikada esku-eskura: begonia (*Begonia x tuberhybrida*), baltsamo-belarra edo ilena (C*alendula officinalis*), azuzenak (*Hemerocallis spp.*), Txinako arrosa (*Hibiscus rosa-sinensis*), kaputxina (*Tropaeolum majus*), ekilorea (*Helianthus annuus*), albahaka, (*Ocinum basilicum*), martorria (*Coriandrum sativum*), mihilua (*Foeniculum vulgare*), oreganoa (*Origanum vulgare*), mendaroa (*Origanum majorana*), aza jendea (*Brassica spp.*), errefaua (*Raphanus sativus*), bioleta usainduna (*Viola odorata*), bioleta handia (*Viola x wittrockiana*), babarruna eta leka (*Phaseolus vulgaris*), ezkaia (*Thymus vulgaris*), belatxeta edo izpiliku fina (*Lavandula angustifolia*), astaizpilikua (*Lavandula latifolia*), izpiliku mina (L*avandula stoechas)*, errukulak (*Eruca vesicaria sativa* eta *Diplotaxis tenuifolia*), dama errukula (*Hesperis matronalis*), txikori-belarra edo sorgin-belarra (*Taraxacum officinale*), basabitxilorea (*Bellis perennis*), kuiatxoa eta kuia (*Cucurbita spp.*), hirusta gorria eta zuria (*Trifolium pratense* eta *T. repens*), atxaparra (*Lonicera spp.*), erromeroa (*Rosmarinus officinalis*), azitraia (*Satureja hortensis*), perraitza edo apo-perrexila (*Anthriscus cerefolium*), ezkia (*Tilia spp.*), etxeko poza edo baltsamina arrunta (*Impatiens walleriana*), porru-tipula (*Allium schoenoprasum*), ezamihilua edo aneta (*Anethum graveolens*), zauri-belarra edo salbia (*Salvia officinalis*), krabelina (*Dianthus caryophyllus*), urkitza edo jasmina (*Jasminum officinale*), luisa-belarra (*Aloysia citriodora*), malba gorria (*Alcea rosea*), urrelilia (*Chrysanthemum coronarium*), nabar-lorea (*Centaurea cyanus*), basa-julufraia (*Lychnis flos-cuculi*), petenta edo fuxia (*Fuchsia spp.*), uztaoa edo lapaitza (*Rumex acetosa*), papantsea (*Viola tricolor*), amañililia (*Syringa vulgaris*), tagetea (*Tagetes spp.*), oinlodia edo peonia (*Paeonia spp.*), zuhain azenarioa (*Daucus carota*), arrosak (*Rosa spp.*), ilarra (*Pisum sativum*), artoa (*Zea mays*), mendak (*Mentha spp.*), idi-bihotza (*Tulipa spp.*), ziabelar usainduna (*Galium odoratum*), zamo txikia edo basa azafraia (*Carthamus tinctorius*), borraja (*Borrago officinalis*), dragoi-muturra (*Antirrhinum majus*), aingeru-belarra (*Angelica archangelica*), geranioak (*Pelargonium spp.*), bananondoa (*Musa x paradisiaca*) eta sagarrondoa (*Malus x domestica*). Eta, ahaztu gabe, intsusa (*Sambucus nigra*). ■

Arrakasta izan du Nafarroako II. Azoka Ekologikoak

NAVARRAECOLOGICA.ORG

Garazi Zabaleta
@tirikitrann

Iruñeko autobus geltoki zaharra Nafarroako ekoizpen ekologikoaren erakusleiho bihurtu da bigarren aldiz maiatzaren 19tik 21era bitarteko asteburuan. NNPEK Nafarroako Nekazaritzako Produkzio Ekologikoaren Kontseiluak antolatuta, egitarau zabala eskaini dute asteburu osoan ekimen ugarirekin.

"Ekologikoak, hobeki bizitzeko"

50 ekoizle baino gehiagok hartu du parte Nafarroako II. Azoka Ekologikoan, bisitariei denetariko produktuen eskaintza zabala eginez: barazkiak eta fruta, haragia, arrautzak, esnekiak eta ogia, gozokiak, kontserbak, edariak, zukuak edo ardoa. Etxeko hozkailua produktu ekologikoz ez betetzeko aitzakiarik ez zegoen.

"Nafarroako Azoka Ekologikoarekin hurbileko produktu ekologikoen ikusgaitasuna bultzatzea eta produktuok balioan jartzea da helburua. Azoka, gainera, aukera ona da elikagai ekologikoak Nafarroako jendartera hurbiltzeko", azaldu dute azokaren antolatzaileek NNPEKren webgunean.

Postuez gain, formaziorako beta

Produktu ekologikoen eskaintzatik harago, bestelako ekimenak ere izan dira. Elikaduraren eta ekoizpen ekologikoaren inguruko hitzaldiak eta azokako produktuen aurkezpenak ez dira falta izan hiru egunetan zehar. "Baratza kritikoa" Mugarik Gabe Nafarroaren erakusketa ere ikusgai jarri dute Nafarroako Condestablen, maiatzaren 27ra bitartean.

Horrez gain, sukaldaritza erakustaldiak antolatu dituzte: sukaldariek jendaurrean prestatu dituzte beren platerak, hurbildutakoei aholkuak emanez. Makrobiotika aholkulari bat izan zen saio horietako batean, adibidez, "Astirik gabeko jendearentzako sukaldaritza" izeneko erakustaldian.

Helduak hitzaldi nahiz aurkezpenetan zeuden bitartean, etxeko txikienek ere izan dute zer egina azokan. Xaboi ekologikoa egin eta pintura ekologikoekin marraztu dute gaztetxoek haurrentzako antolatutako jardueretan, besteak beste.

Milaka bisitari jaso ditu azokak asteburuan, eta pozik agertu dira antolatzaileak lortutako arrakastarekin. Nafarroan ere produkzio ekologikoaren gaineko interesa zabaltzen doan seinale. ■

Energia Plana
garatzen ari gara
Udal eraikinen potentzia optimizatu dugu
Urteko fakturan %22,4ko aurrezpena
Hernani jasangarriagoa
Hernaniko Udala

GURE GAIAK DIRA GURE BALIOAK | PARTE HARTU ETA IRABAZI SARI HAUETAKO BAT

Aste honetako nabarmendua | *TXAKUR GORRIA* | 1

Txakur Gorria, sormena helburu

Txakur Gorria autosorkuntza, autoedizioa, autoekoizpena… finean, sormena helburu duen taldea da. Mariñe Arbeo, Malen Amenabar eta Nerea Ibarzabalek osatzen dute, eta hiru liburuxka eta ikus-entzunezko lan bat plazaratu dituzte dagoeneko.

Txakur Gorria ipuin labur ilustratua izan zen lehenengo lana eta taldeari izena eman ziona. Handik gutxira sortu zuten *Atea irekiko ez lidaketen pertsonen etxean leihotik sartu nintzenekoa*, edo bizilagunen bizitzak imajinatzearen artea. Eta inguruko konplize eroen laguntzaz, *Hizteria, eskuko hiztegia* jaio zen, hitz eta definizio asmatuak biltzen dituen liburuxka. 2016ko Durangoko Azokan Bagatoz! stand-a elkarbanatu zuten Lekore eta Erraiak proiektuekin.

Aurten *Hartza zu* ikus-entzunezko lanarekin Bertsomoviedako lehenengo saria eskuratu dute.

Eragile hau hobeto ezagutzeko:

TXAKUR GORRIA

Facebook: Txakur Gorria
Twitter: @txgorria
Webgunea: www.txakurgorria.eus

#autoeraketa
#sormena
#literatura
#kulturalibrea

Ekaineko sariak

1

Txakur Gorria liburuxka
4 ale

2

Kale kantoi, kalean jolasteko bilduma
2 ale

3

Josu Bergararen "Kanta txikien indarra" diskoa
4 disko

4

Kontseiluaren eskutik, Zergatik erropa marka
sorta bat

Parte hartzeko: ✆ 943 371 545 | gunea@argia.eus | www.argia.eus/gunea

Eragilea bazara, zabalkunderako materiala baduzu eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan.

ANTZA INPRIMATEGIA

Digitalik gabeko garairik egon zen

Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria
ARGAZKIA: DANI BLANCO

Aste honetan entzun dut erredakzioan laguna: "Gu orain batzuetan presaka, ezin iritsita ibiltzen bagara guztia digitalizatuta dugula, lehen nola egiten ote zuten mundu digitalik gabe?".

Hortik hasi da elkarrizketa (eta tartean ARGIAko dinosaurorik ez geneukanez, ez dugu erantzun zehatzik atera). Produkzio guztia da aldatu dena, kate osoa; argazkitik hasi eta inprentaraino antza. Antza. Nola aldatu ote da?

1988an sortu zen Antza inprenta Egia auzoko Ametzagaiña txokoan, ARGIAren altzoan. Bi urteren buruan lekualdatu ziren guztiak gaur egun gauden Lasarte-Oriako pabilioietara. Ez du zerikusirik orduko lan egiteko moduak eta gaurkoak, eta era digitalaren atarian hazi den gazte honi duela ia 30 urteko Antza haren funtzionamendua azaltzeko eskatu diet langileei.

Paperean inprimatutako argazkia gela ilun batean plastiko berezi batera pasatzen zen, eta bitartean testua ordenagailuan idatzi, irudiarentzat hutsunea utzi eta hori beste plastiko batean inprimatzen zen. Hor hasten da eskulanaren artea. Honek orriak prestatu, eta kateko ondorengoak orri bakoitzarekin plantxak egiteko muntaia osoa egiten zuen. Plantxak egin eta makinara.

Gaur egun oinarrizko lau koloreak batera emateko makina badute Antzan, baina 1990eko hamarkadan makina bakarra zuten, sartu-irten bakoitzean kolore bat emateko sistema zuena. Beraz, plantxak eta papera lau aldiz pasa behar izaten zituzten kolore guztiak hartzeko.

Autoedizioa izan zen lehen aurrerapen teknologikoa. Argazkia eta testua eskuz muntatzetik eskaner bidez argazkia ordenagailura pasa eta bertan editatzen hasi ziren. Geroago etorri zen digitala. Honek eskanerrak erredakziotik desagerrarazi ditu, eta zuzenean plantxak sortzeko manipulazio guztia ordenagailuan egiten da.

Lau lerrotan azaldu ditudan aurrerapen horiek horrela irakurrita tontakeria badirudite ere, produkzioan izugarrizko pausoak izan dira. Gazte ezjakinak galdetu die bidalketak egiteko astearterako denak prest egon behar badu eta orain astelehen goizean inprimatzen bada aldizkaria, ea garai hartan noiz hasten ote ziren. "Ostegun goizerako inprentan", erantzun didate. Ideia bat egin dezaket zer zekarren eskulan horrek guztiak. ■

Sarean arrantzatuak

Cristina Enea
@cristina_enea
Harpidetu gara @argia aldizkarira, bai eta lehenengo alea jaso ere. Eta, hara zer poza! Gure egitasmo bati buruzko albistea bertan!

Iapurra!
@sartuda
Maite dut maite, goizean goizetik, kazetaritza usaina. Benetakoa. Lan bikaina, @larbelaitz

Ene Begirada
@EneBegirada
. @argia irakurriz bidea laburrago eta interesgarriagoa da #AnaMalagon

Maiatzeko sarituak

- **Kimutx liburua:** Mikel Urkixo (Zeberio), Inazio Otaegi (Gamiz Fika), Sandra Losada (Gasteiz) eta Asier Jauregi (Bilbo).
- **Perlata diskoa:** Esti Araujo (Barakaldo), Zesar Armendariz (Noain), Josu Martinez (Bilbo) eta Leire Narbaiza (Eibar).
- **Mugarik Gabe sorta:** Maritxu Etxezabal (Azpeitia), Idoia Azkona (Iruñea) eta Maialen Chantre (Bera).
- **Bazkaria Bilboko Kafe Antzokian:** Joseba Berriotxoa (Zornotza) eta Arantxa Garmendia (Zaldibia).

Zazpi zaldi deukodaz

Ez da beti gozoa izan Euskal Herrira itzultzea andere edo gizon arrotz batekin. Askotan erbestea sari, eta bakarretan tragedia. Hilotz anitz kausitzen da euskal kantuen eremuan, odola, beldurra eta heriotzaren epika. Hiru Truku talde akustikoak –Ruper Ordorika, Joseba Tapia, Bixente Martinez– 1994an plazaratu zuen *Frantziako Anderea* baladaren bertsio modernoa, eredu horretan kokatzen da bete-betean.

Itxaro Borda
IRUDIA: AINARA AZPIAZU "AXPI"

Manuel Lekuonak jaso zuen 1933an, Zeanuriko Undurraga baserrian, *Frantziako Anderea* tituluarekiko eresia: hamasei kopla, zortziko txikian harilkatuak, bizi-biziak. Testuaren trinkotasun uhergarriak erraiak inarrosten dizkigu irakurtzean bertan. Juan Dorronsoro bertsozaleak kantaren bertsio bat bildu zuen Ataunen, bizkaieraz, transplantatua. Antonio Zavalak kontatzen zuenez 1998an, zeanuritar senar-emazte batzuk etorri ziren Ataunera eta hauen haurrengandik erdietsi zen obra eder hau.

Harrigarria da ikustea, edozein dela euskalkia, abesti latzak zein sakon errotzen diren euskaldunon memoria kolektiboan. Ezpeldoiko alabak, Urtsuko arreba Joanak, Musde Irigaraien alargunak eta Frantziako Andere gazteak espirituak markatzen zituzten eta horri esker pasatu ziren belaunaldiz belaunaldi, aldaketa apurrak gora behera. Jendetasunaren oinarriari mintzo zitzaizkien, bihotzari, garunari, ametsari, gutan unibertsala den sentimendu bati.

Oraindik ere gustatzen zaizkigu. Gure sozietatea irudiarena bilakatua denez, kopla zahar hauetako istorioen antolaketa edo moldaketa arras zinematografikoa azpimarratzen dugu: elkarrizketak badira, espazioan solaskideak nola plantatuak diren agerpenak, erailketaren tresnak azaltzen dira eta hondarrean krimena bera obratzen da ikusgarriki, pastoraletan bezala, pertsonaia nagusiak hiltzailea madarikatzen duela azken hatsa eman bitartean. Frantziako Andereak narrastiekiko metafora erabiliz, muskerra eta sugeak itxuratzen ditu amaginarrebaren ohean:

Ai neure amaginarreba
muskerrez betia
subeak eingo al deutsu
arratserak ohia.

Errenazimenduko giroa usnatzen dugu poema handios honetan. XV. edo XVI. mendeetan gaude antza, elkarren arteko gerrak sustatuz, errege konkistatzaileak orain ezagutzen ditugun estatuak, bortitz eta anker, orrazten ari zirenean:

Etorri nintzanean
Frantzie kortetik,
ama topatu neban
suitian tristerik.

Nafarrak, bizkaitarrak eta Iparraldeko sendietako hirugarren semeak erre-

ge pataskari horien zerbitzuko jartzen ziren, dirua eta abentura amets zuten mertzenario gisa. Alexandre Dumas nobelagilearen 1844ko *Hiru Mosketariak* eleberri ezagunak aipatzen du Richelieuren (1585-1642) denborako Zuberoa eta Biarno arteko mugetan garatu mugimendua D'Artagnan, Aramits, Porthos eta Athos pertsonaia distiratsuak ardatz.

Frantzie kortetik bueltan zetorren gizon gaztea, agian, gerrazale banda bateko kidea zen, bakearen orduak jotzean, Frantziako gorteren batean ezagutu zukeen bere ezkontidearekin etxeratzeaz beste erremediorik ez zuena. Arratia aldeko etxe noble bateko ondorengoa zitekeen, amaren seme kuttuna, amaren menpekoa arras. Ama *suitian tristerik* dago: semearen hiztegiak neurri batean zirkulu aberatsena ekartzen du gogora, *suitea* deitzen duelarik menturaz, familiako jauretxe umil eta hotz hartako sukaldea edo ezkaratza. Bizkaian gabiltzanean, etxe indartuak miretsi ditzakegu eta berehala buruetan gertakari odoltsuak asmatzera lerratzen gara.

Ondoko zortzi kopletan ama-semeen arteko solasaldia garatzen da, perpaus laburrak, tragikoak. Hor ikasten dugu semea atzerritik ezkondua datorrela, *Frantzie kortekoa* duen Juanita izeneko emaztearekin. Amak ez du frantses emakumerik nahi bere seme laztanarentzat, are gutxiago jatorri berdineko errainik:

– Ez dot gura frantsesik
hain gutxi errainik
– Esan dodan berbiaz
urten bihar dot nik.

– Esan dozun berbiaz
urten bihar dozu
urten bidera eta
hil ein behar dozu.

Amak kondena formulatu du: semeak kanpotik ekarri anderea erail beharko du. Semea alta, maitemindua da, Juanitari zinez atxikia, eta ez du erraz onartzen amaren ebazpena. Arropa beltzez apainduriko etxeko andere zaharrarekin negoziatzen saiatzen da, ondorio onik gabe:

Hain de polite ba ze
nire emaztea
ez da posible ama
nik hori eitea.

Semeak ez du ihesik. Arazoa, hemen, ezkontza exogamikoek sortzen dute, Euskal Herria, ordukoz, Hegoaldean Espainiaren eta Iparraldean frantses boterearen atzamarretan dagoela. Abesti hauetan jatorri geografiko kontua larriagoa da maila sozialen arteko leizea baino, ezkontide hauek, funtsean, guztiz gehienak aristokrata txikiak zirelako.

Amaren manua egiazko ordena da: Juanitak hil beharko du, derrigorrez. Semeak, ekintza horren burutzeko kobardeegia baldin bada, estudiante dabilen bere anaiari laguntza galdatzen ahalko dio:

Zuk ez pozu posible
hartu anajia,
anaje gaztea da
estudiantia.

Semearen tristura imajina dezakegu bere andere ederrari zalditik jaisteko eskatzean, deblauki, puñala bihotzean sartzeko xedea zeukala jakin arazten dionean:

Juanita jatsi zaite
zaldien ganetik
sartu daitzudan punal hau
bihotzen erditik.

Ai horren punal horren
puntien zorrotza
ikusiez beste barik
hilten deust bihotza.

Bere aldian, Juanita, senarraren berazteko urratsetan galduko da. Heriotzaren beldurra aipatzen dio eta familiatik eskuratu dotearen aberastasun materialak oro zerrendatzen dizkio:

Zazpi zaldi deukodaz
izeraz jantzita
zortzigarrentxoa barriz
perlaz estalia.

Horrez gainera dekot
urre kalizia
urre-kalizia ta
sobre pelizia.

Harek emongo tzudaz
istiarren bizirik.

Juanita, azken uneraino borrokatuko da. Mihisez eta perlaz hornitu zaldiak, urrezko kalitzak eta abere larruzko palto karioak eskaintzen dizkio bizitzen uztearen truke. Urtsuko kantako Joana ere, anaia apezarekin hizketan, berea salbatzen entseatu zen. Halaber Ozaze Jaurgaineko neskatxak, Espainiara eraman bezperan, ama saltzailea bere heriotzaren errudun egin zuen. Orduan, gaur egun bezala, emazte baten otoitza imilitzaren pare zitekeen.

Semea jadanik amaren influentzia pean zegoen. Ama, bikotearen saihetsean herioaren sua akuilatzen irudika dezakegu, bere orroetan zikoizkeria eta gorrotoa sentitzen direla.

ARRATIAKO ALDAERA

Arratiako beste aldaera, Jon Juaristik adineko emakume baten ahotik hartu zuena laurogeiko hamarkadan:

– Agur, agur, ama neuria!
– Ongi etorri zarela seme neuria!
Ezkondurik ala ezkongai heldu zara semia?
– Ezkondurik heldu naiz ama neuria.

– Frantsa ala española duzu andria?
– Frantsesa dut baino guztiz noblia.
– Mortura guan eta hil egin behar dik,
Nik eztiet ikusi nahi frantses erreinarik.

Handikan guan nintzen apezarengana
apezarengana eta anaiarengana
hark ere esan ziran amak bezala
mortura guan eta hil egin nezala.

Handikan guan nintzen arrebarengana
arrebarengana eta gazteenarengana
haretxek esan ziran bihar zan bezala
etxera karri eta maitatu nezala.
Estimatzen zuela koñata bezala.

– Andria, igesi, igesi zaldien gainera
mortura guan eta hil egin behar dun.
Andriak heldu dire handik eta hemendik
nire arreba Juana ezta ageri inondik.

Senarrak eman zira lehenbiziko kolpia
Bereala koñadu apezak aldamenetik bertzia
– Oi kanabitaren puntaren zorrotza!
Usu harrapatu dio nere amari bihotza.

Harek neuretzat baina
ez itxi bizirik.

Antzinako euskal balada anitzetako erail tresna da puñala. Eskumuturrean fermuki atxikitzeko eta erabiltzeko erraza zen. Jomuga ez zuen huts egiten eta zuzenean bihotzera zihoan ezpata txiki erosoaren *puntie zorrotza*. Zaldunek oinetakoen barruan zeramaten gordea, zer edo zer gerta ere, beti baliatzeko prest. Kasu honetan, senarrak, ama larderiatsu haren semeak, ez zion Juanitari aukerarik eman.

Zeanuriko eresiaren hondar hiru kopletan Juanita bera dugu aditzen, bere herioa deskribatzen duela: agonia kanpaiak hautematen ditu, izarak edo mihiseak odolez mantxatuak ikusi eta amaginarrebaren madarikatzeko beta ere baduela zendu aurretik:

Kanpai bat entzuten dot
ez dakit nongoa
igual izango da
agoniekoa.

Zazpi izera dodaz
odolez mantxaurik
zortzigarrentxu honek
naroia ni mundutik.

Bukatzean, jada erran dugun eran, amaginarreba muskerrei eta sugeei konparatzen du, sendiaren boterea gatibatzen duen narrasti herrestari eta gaiztoa baino ez dela erakusteko. Iruditeria horrez, Juanita, Caravaggiok *Marmoka* taulan egiaztaturiko errenazimenduko tradizio batean kokatzen da: buru ebaki bat, sugeez setiatua…

Arratiako lurretan *Frantziako Andrea*ren beste aldaera bat kantatzen da. Idazki honetan, amaren eraginez, semeak ez ezik, herriko apeza ere ekintzari juntatzen zaio, Juana edo Juanitaren hilketaren obratzeko. Aldion, eliza eta familia uztartuz, egitura sozial oso bat batzen da exogamia errotik eta bortizki gaztigatzeko: maitasunak ez du muntarik.

Senarrak eman ziran lehenbiziko kolpia
berehala koñadu apezak aldamenetik bertzia.

– Oi kanabitaren puntaren zorrotza!
Usu harrapatu dio nire amari bihotza. ■

Alain Urrutia

Irudien berezko indarra

AHANZTURA (2017)

Olioa egurrean eta UV erretxina, 30x25 cm

Xabier Gantzarain
www.argia.eus/artea

Aurtengo martxoan Oier Aranzabalek Zuzeurako egin zion elkarrizketan, artistak hauxe zioen: "Irudiz inguratuta gauden garaiotan, ez dut uste irudiak irakurtzeko gai garenik". Bere lanekin antzera gertatzen da: ikuslea heldulekurik gabe uzten amorratua da Alain Urrutia (Bilbo, 1981eko urriaren 29a).

Bere hitzetan: "Aurretik existitzen diren irudien irakurketa berriak bilatzen ditut. Honetarako euren errealitatea berreraiki eta berezkoa duten istorioa eta narrazio bat eraikitzeko aukera ezabatzen diet. Itzal joko bat, non ezabatze eta ezkutatze tekniken bidez iheskorrak diren irudiak sortu eta irudien xehetasun batzuk nabarmentzen diren."

Erdiz erdi lortzen du helburua. Bere koadroetako irudiei ikusleak ezin ezarri die hitzik, historiarik, narraziorik: irudi hutsak dira. Iraganik eta gerorik gabeko uneak, eta hala ere historikoak: eraikiak. Izenburuek laguntzen dute batzuetan, zeharka, baina batek ezin dio inoiz oratu bete-betean irudiari, ezin dio eman zentzurik, ez dago lasaigarririk. Irudi hutsak dira. Eta irudi izate horren berezko indarra azaltzen da orduan, eta ikusleak ez du irudia ikusi beste erremediorik. Irudiz inguratuta gauden garaiotan, artistak irudia hartu, narrazioa ezabatu, eta bere horretan ematen dio ikusleari: begiratu.

Pinturari buruz ari da beti, ezinbestean, irudiak zabaltzeko orduan pinturak zein funtzio duen galdetuz bezala, eta funtzio hori bera aldarrikatuz era berean: hartu astia, begiratu. Edonondik hartutako irudiak dira, argazkiak gehienetan, gero bere koadroetara eramaten dituenak, baina ez du inporta hainbeste zer, zer irudi den, zer erakusten duen, baizik eta nola: nola ikusten ditugu irudiak?

Ikuskizuna ez da irudien bilduma bat, irudiek egindako jendeen arteko harreman soziala baizik. Guy Debord. ■

Andrés Daniel Sainz

Joan den hilabetean Donostian errodatu zuten *For the good times* lanaren xehetasunak irakurri eta ikusi ostean, datozen hilabeteetan zeresan ikaragarria emango duen ekoizpena izango dela iragartzen dizuet. Kris Kristofferson-en izen bereko abestiari erreferentzia egiten dion film labur hau, Andrés Daniel Sainz zuzendari donostiarraren lan berria da.

Gaizka Izagirre
@Gaizka_Izagirre
ARGAZKIA: DANI BLANCO

"EUSKAL HERRIAN EKOIZLEAK FALTA DIRA"

Komedia melodramatiko moduan aurkeztu duten ekoizpen honek zera kontatzen du: aitalehenak urteak betetzen dituenez, familia osoak eguna ospatzea erabaki du seme zaharrenaren jatetxean. Guztien artean sekulako sorpresa prestatu diote. Afaria baino apur lehenago ordea, semeetako batek, Xabierrek, iragarri du bere bikotekidearekin azalduko dela. Gehienek homosexuala dela susmatzen duten arren, Xabierren sorpresa guztiak ez dira hor amaituko.

Film labur korala dela ere esan liteke. Ramon Agirre, Klara Badiola, Iñaki Rikarte, Itziar Ituño, Iñigo Gastesi, Aitor Beltrán, Miren Gaztañaga eta Gorka Zufiaurre. Grabaketan egoteko aukera izan dut eta, sinets iezadazue, antzezle erraldoi hauen erakustaldiaren "erruz", emozioz beteriko uneak biziko dira; aipamen berezia merezi dute azaltzen diren bi umeek ere, Imanol Mujika eta Haritz Rodriguez –lehena, gainera, *Aundiya* filmean ikusteko aukera ere izango dugu–; eta amaitzeko, Cowboy abeslaria, Giorgio Basmatti.

Gidoi oso sendoa eta Euskal Herrian –nik dakidala behintzat–, inoiz tratatu ez den gai bat jorratzen du proiektu honek –ez dizuet zehaztuko zein den–. Horren erantzule nagusia, aipaturiko Andrés Daniel Sainz. Behin errodajea amaitu eta post-produkzioan murgildurik dauden honetan, berarekin hitz egiteko aukera izan dut.

Pozik al zaude?

Oso-oso pozik eginiko lan eta esfortzuarekin. Batzuk pertsonalki lehenagotik ezagutzen ez nituen arren, errodajea amaitu denean, lagunak direla esan dezaket, familia txiki bat sortu dugu. Zoragarria izan da eman duten guztia.

Zure aurreko lana –*Haiku 1975*– eta hau hain desberdinak izanik, badute antzekotasunik?

Bai. Istorioa, aurreko lanaren beste muturrean kokatzen den arren, eta narratiboki normalagoa izan arren, bietan lengoaiaren mugez aritu nahi izan dut. Muga horiei, kasu honetan, familien arteko erlazioei buruzko hausnarketa bat ere gehitu nahi izan diet. Familian zer esaten den, eta batez ere, zer ez den esaten.

Deigarria egiten zait, hasiberria izanik, adibidez, aktoreen artean izen nahiko potoloak ageri direla ala argazki zuzendaritzaren erantzulea Kalo Berridi (*Airbag, La ardilla roja, 8 apellidos vascos*) ezaguna izatea. Nola izan da hori posible?

Tartean, guztiak konbentzitu duten ezinbesteko faktore bat egon delako: gidoia. Irakurri duten ia guztiek parte hartu nahi izan dute proiektu honetan. Hori eta Vidania films, Alberto Gastesi eta Loinaz Jauregik sekulako lana egin dutelako. Beraiei esker, alderdi artistikotik kanpo dagoen guztiaz erabat ahaztea lortu dute. Lan ikaragarria egin dute eta zuzendari batek egin beharko lukeen lan horretan soilik zentratu nadin lortu.

Orain muntaia lan guztia amaitzean zein da helburua? Zerekin egongo zinateke pozik?

Lan hau ahalik eta jende gehienak ikustea, hori da niretzat ezinbestekoa. Hortik aurrera etor dadila etorri beharrekoa.

Film laburrez ari garela, nolakoa da euskal film laburren panorama momentu honetan? Kalitatezko edukiak daude? Nazioartean oihartzunik badute?

Bai, nik uste sekulako maila dagoela Euskal Herrian. Genero mota ugari ukitzen direlako eta kalitate eta estilo oso desberdinak topatu daitezkeelako. Lan hauek guztiak mugitzerako orduan Kimuak (Euskal Herriko film laburren aukeraketa) adibidez, ezinbestekoa iruditzen zait. Lana ikaragarri errazten dute, erakusleihoan egoteko aukera eskainiz eta, garrantzitsuena, zure lanari "kalitatezko zigilu" moduko bat itsatsiz.

Sekulako kalitatea dagoela diozu baina, izen edo lan konkreturik emango zenuke?

Bai, errazena hori izaten da gainera. Film laburretan, Koldo Almandoz, bere *Deus et machina* zoragarriarekin adibidez; Alberto Gastesi, Rafa Zubiria, Lander Camarero, Laida Lertxundi eta Aritz Morenoren lanak ere apartak direla uste dut; Roberto Castónen *Ander* eta *Los tontos y los estúpidos*, Fernando Francoren *La herida*, Asier Altunaren *Amama*; *Loreak* jakina; Leire Apellanizen *El último verano*; Gorka Bilbao eta bere *Jai Alai Blues* bikaina; Imanol Rayoren *Bi anai*; Cobeagaren *Negociador*; José María de Orbe Donostiarraren *Aita*... asko aipatuko nituzke.

Ekoizpen ugari aipatu dituzu baina, gidoia idatzi, ekoizpenak sortu edo mugitzerako orduan, Euskal Herriko "makineriaren" barruan akatsik ikusten duzu? Laguntzarik bada?

Gidoi bat idatzi ostean, oso zaila egiten zait Euskal Herrian gidoi horrekin zer egin behar dudan jakitea, nola mugitu, nori erakutsi, nora joan. Ekoizleak falta direla uste dut, egile zinema edo proiektu txikiagoak bultzatu nahi dituztenak batez ere. Ekoiztetxeak badira, bai, baina gehienetan auto-ekoizleak izaten dira. Hortxe *Amama* eta *Loreak*en kasuak adibidez: gidoi zoragarriak biak, baina Txintxua Films eta Moriarti existituko ez balira, ziurrenik bi film horiek ere ez. Existitu bai, baina beste era batean grabatuta, agian beste hizkuntza batean. Bestetik, film laburretan dauden laguntza horiek guztiak, luzera salto egitean, zeharo galtzen dira, desagertu. Sentsazioa dut bakoitzak bere proiektuarekin "arriskatu" behar duela, ez dago nazioarteko ikuspegirik.

Aurten Tabakaleran irekiko den Zinema eskolan, zinegileak soilik ez, ekoizleen formakuntza egotea ere ezinbestekoa iruditzen zait.

Hurrengo proiekturik?

Bai. Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza jaso genuen eta urtea amaitu baino lehen, *El tercer hombre* izeneko film laburra errodatuko dugu. Oso desberdina izango da, estilo-ariketa moduko bat.

Imajinatu mugarik gabeko aurrekontua duzula, zein motatako zinema egitea gustatuko litzaizuke? Nazioarteko eta Euskal Herriko zein aktore aukeratuko zenituzke?

Ez zait generoen barruan etiketatzea gustatzen, guztiak interesatzen zaizkit, ez dago genero txarrik. Aktoreei dagokionez, nazioartekoak, Joaquin Phoenix, Tony Leung, Juliette Binoche eta Isabelle Huppert adibidez. Eta etxekoak, Aitor Beltran eta Ramon Agirre gizonezkoen artean. Emakumezkoak aldiz, film laburrean parte hartu dutenen artean kosta egingo litzaidake. Dena den, aukeratzeko eskatzen didazunez, orain momentu honetan, Itziar Ituño eta Miren Gaztañaga aukeratuko nituzke. ■

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Literaturaren eta bizitzaren etika

Amaia Alvarez Uria

Askatasuna, etengabeko borroka bat
ANGELA DAVIS

Itzultzaileak:
Amaia Apalauza Ollo, Iñigo Roque Eguzkitza, Garazi Ugalde Pikabea.
Katakrak, 2016

Iazko urrian Iruñeko komisaria batean hil zen Elhadji Ndiaye gazte senegaldarra. Atziloketa bortitz baten ondoren gertatu zen heriotza eta geroko manifestazio jendetsuan *Black Lives Matter, Bizitza da handiena*, eta *Polizia ugari*, *justizia gutxiegi* leloak ozen entzun ziren. Ekitaldi horretako argazki batekin hasten da Angela Davisen liburu hau euskaraz.

Has zitekeen ere larriki gaixo dagoen Oier Gomez presoa kartzelatik ateratzeko egon den mobilizazio sozialarekin. Edo azken LGTBIfobiaren kontrako manifestazioaren Donostiako kartelari begira: "Ez hemen ez inon. Txetxeniarekin elkartasuna". Edo maiatzaren 19an Gasteizko Errekaleor auzo okupatuan Ertzaintza eta Iberdrola sartu zirenean auzokoek egindako erresistentzia eta sare sozialetan eta kalean jasotako elkartasunari erreparatuta.

Askatasuna lortzeko "etengabeko borrokan" engaiatu behar dugula azpimarratzen du egileak liburuko hamar ataletan bildutako elkarrizketa eta hitzaldietan. Jendartea eraldatzeko "estatuaren indarkeria estrukturala denez" aldaketa sistemikoak behar dira, eta horretarako masa mugimendua: jendea kontzientziatu, antolatu eta mobilizatzea.

Justizia soziala erdiesteko intersekzionalitatea dugu: borroken arteko loturak eginez, jendearen premiei begira, ez etekin kapitalistei. Izan ere, elkartasunak "mutualitatea" dakarrela dio, beraz, arrazakeriaz, matxismoaz edo klasismoaz ezin daiteke bereizirik hitz egin.

Era berean, ekintzari lehentasuna ematen dion arren, ideien eta hitzen inguruko hausnarketa egin behar dela dio, horregatik ikertzaile-aktibistei buruz hitz egingo digu, praktikarekin batera diskurtsoa osatu behar delako.

Hortaz, feminismoak erakutsitako "pertsonala politikoa da" eta Martin Luther Kingek esandako "bati eragiten dionak guztioi eragiten digu zeharka" gogoan hartuta, borrokak bateratzeko deia egiten du "elkartasun transnazional" baten bidez.

Fergunsoneko hilketa, kartzela industria konplexua eta Palestinaren zapalkuntza topatuko ditugu orriotan beste batzuen artean, iazko otsailean gurean "Kartzela eta Emakumea" jardunaldietara etorri zenaren eta iazko Durangoko Azokako nobedadeetan liburu gehien izan zituen egilearen eskutik (bere biografia, bere libururik ezagunena, jardunaldietako "akten liburua", eta hemen aurkezten ari garena).

Sar zaitez Angela Davisen unibertsoan zu ere eta, Hedoi Etxartek dioen moduan, amestu, landu, eztabaidatu eta saretu, edo ekin eta pentsatu, hots, bietan jarrai. Literaturak ere baduelako epika, ez-fikzioa, saiakera. Estetikaren ondoko etika. ■

Angela Davis (Birmingham, Alabama, AEB, 1944)

» TELEGRAMA

Ekainaren 1etik 4ra **Zurrunbilo** euskal arte eszeniko garaikideen jaia antolatu dute Gasteizen: Baratza aretoan, Oihaneder euskararen etxean eta TAEn izango dira emanaldiak *STOP* Hamar urte daramatza **Rockumentalak** festibalak Zarautzen musika eta zinema uztartzen. Aurtengo edizioa ekainaren 2an hasiko da Ainara LeGardonen kontzertuarekin eta The Stooges taldeari buruzko *Gimme danger* filmarekin *STOP* Ekainaren 1ean zabalduko da Bilboko Alondegian **Europako mugak** erakusketa, 5W taldeak Mediterraneoan jasotako esperientziak biltzen dituena. Hilaren bukaera arte ikusgai *STOP*

» DISKOA

Rock instrumental fina

Joxi Ubeda

II

SOFA

Bonberenea ekintzak, 2017

Pieza instrumentalak jotzen ditu Sofa taldeak, letrarik gabekoak. Giro musika da, azken batean, rock instrumental fina, dotorea. Melodia eta harmonia politak egiten dituzte indar eta grina handiarekin. *II* bigarren diskoko kantuak ederki landu dituzte, ederki moldatu, eta lana oso ongi ekoiztu dute Karlos Osinagarekin. Soinu sendoa, trinkoa eta distiratsua gauzatu dute.

Taldekideak Zumaiakoak eta Zarauzkoak dira: Jonbe Martinez (gitarra), Kepa Izeta (baxua) eta Imanol Sesma (bateria). Trebetasunez aritzen dira beren musika tresnekin, bizi, eta gatz eta piper handiarekin.

2012an sortu zuten Sofa taldea, eta *I* lehen lana 2015ean kaleratu zuten. 200 aleko lehen edizio mugatua egin zuten, eta diskoak eskuz eta mimo handiz bildu zituzten kartoizko kutxatan. Bigarren edizioa ere egin zuten, eta ale guztiak saldu zituzten. Disko horrek oihartzuna izan du, berrogei emanaldi baino gehiago egin dituzte diskoa kaleratu zutenetik, eta taldea gero eta ezagunagoa da. *II* lan berria haren jarraipen ederra da. Beren bidean aurrera egin dute.

Musika, rock musika, beren eran ulertzen eta jotzen dute. Modu horretan azaleratzen dituzte haien sentipenak eta kezkak, eta transmititzen dute bizitasuna, bizipoza, gogoa eta ilusioa grabazioetan eta jendaurreko emanaldietan. ■

Sofa taldeko Jonbe Martinez (gitarra), Kepa Izeta (baxua) eta Imanol Sesma (bateria).

Jende apasionatua gauza ederrak egiten

USOPOP FESTIBALA

Maiatzaren 27an, Saran.
Taldeak: Totorro, Laish, Bigott, Petit Fantôme, Paxkal Irigoyen & Kontsumo Orkestra, Howdy SS.

Kepa Matxain
@kmatxain
ARGAZKIA: @USOPOPFEST

Apustu segurua bihurtu da Usopop festibala. Lasai joan zaitezke kartelaren hiru laurdenak ezagutu gabe, antolatzaileen usaimena aski berme baita jakiteko eszenatokia zapalduko duten musikariek benetan merezi dutela. Hala izan da aurten ere. Laish britainiarren pop atseginarekin ireki zituen ateak jaialdiak. Paxkal Irigoyen eta bere Kontsumo Orkestra hasi ziren segidan, eta, mugikorrak eta kamerak itzaltzeko galdeginda, mantso liseritzeko doinuz bete zituzten Lizarrietako parajeak. Petit Fantome taldearen gitarra gandutsuek lehertu zituzten lehen gerri mugimenduak. Izango zuten horretan zerikusirik tarteka shoegazingera tarteka elektronikara gerturatzen ziren doinu indartsuek, eta baita ordurako entzuleek –bero sapa arintze aldera– dzangatutako Bob´s Beer guztiek ere. Eta amaitzeko, Totorro, bere erritmo puskatuekin, atzealdean sendo, errematean azti, harmailetan zoramena sortuz.

Baina Usopopek irribarrea piztarazten badu, ez da kartel apartagatik –bakarrik–. Hiru elkarrizketatik bitan agertzen zen miresmen hegoaldezentrista hori, gutxi asko horrela labur daitekeena: "Mugaldeko hauek bai jakin gauzak ondo egiten! Beste ezpal batekoak ditunk". Ez bakarrik ohiko detaile zainduengatik –tipi estiloko kanpadendak, koloretako bonbilak, kandelak–. *Merchandising*ean ere bidea erakusten ari dira Usopopekoak. Ez metxerorik, ez poltsarik, ez kamisetarik. Zer eta galtzerdiak atera dituzte –pentsa daiteke, hortaz, epe motzean galtzerdiak bihurtuko direla distintziorako behin betiko prenda. Adi azpialde horretan janzten duzuenarekin–.

Gauzak desberdin egiten hasita, desberdin egiten dute karaokea ere. Kontzertuak amaitzean, hartz handi eta txiki guztien argipean, Los Chimberosekoen zuzeneko musikak girotuta hartu zuen mikroa jendeak. Han ez zen *playback*ik. Eta errepertorioa, ezin orekatuagoa. Aurrena *Hotel California*, gero *La Bamba*, eta amaitzeko, inoiz karaoke baterako egin den pieza perfektuena: Latzenen *Laztana*. Dena dauka: epika, erritmo pausatua, pasioa. Mikroari Xabier Euzkitzek bezala helduta, luzitzeko aukera ematen du, eta jendea gorputz eta arima entregatzen da, kasik lepoan zaintiratua egiteraino. Gauza jakina da Euskal Herrian ez dagoela amonaren bilobarik talde horren beste kantu bakar bat abesteko gai denik, baina horiek txikikeriak dira. *Laztana* bezalako *hit*-a sortu duenari dena barkatzen zaio.

Halako gogoetetara iristen zen bat, igande arratsaldez, Sarako plazan, festibala ixteko Bigott taldeak emandako kontzertuari adi. Eta otutzen zaizu baietz, apustu segurua bihurtu dela Usopop festibala, baina ez musika eskaintzagatik bakarrik. Begiratzen duzu ingurura, ikusten duzu jende apasionatua gauza ederrak egiten, eta pentsatzen duzu ezin zaiola gehiago eskatu jaialdi bati. Dena baitauka Usopopek, baita bere mitoa ere. Kondairak dioenez, bada ezkutuko indar bat Lizarrietara igotzeko bihurguneetan, gutxien uste duzunean jokaldi makurren bat egiten dizuna. Orain bi urte Pettiren autoa amildegira erori bazen, aurten komunaren karabana –kakamioia, lagunentzat– irauli zen errepide erdian, sekulako auto ilarak sortuz. Jaialdia ordubetez atzeratu arren, jendeak txantxaz hartu zuen gertakaria. Denen ahotan kontu bera: eskerrak goranzkoan irauli den, beheranzkoan beharrean. A ze estanpa bestela.

Mitoa puzten segitu nahi duenak badu zer makinatu datorren urtean. ■

Egilea: Ana Zambrano

Gurutzegrama



Lazkano Nekazal Etxea-CC By

Ezker-eskuin:
1. Zimur. Doministiku. 2. Agortu aditzaren infinitiboa. Gizonezkoen alkandora zabala. 3. Era honetan berean. 4. Prestatu, antolatu. 5. Ahuntzaren ar. Enpresa edo kideko batean, enplegatuen talde. 6. Hezetasunik ez duena, lehor. Dantzaleku. 7. Militarren egonleku. Larruazalean sortzen den geruza. 8. Semearen emazte. Gauez kalean ematen den musika-saioa.

Goitik behera:
1. Garbi, txukun. Aldapa. 2. Gora joan. Zenbait gauzaren indar ezkutu. 3. Monakoko herritar. 4. **Nafarroako ibaia (argazkian)**. 5. Pinu mota. Ugaritasun atzizkia. 6. Zabaldu hitzaren erdian. Dagoen. 7. Usapal. 8. Tregoa, menia (bi hitz). 9. Zazpigarren musika nota (alderantziz). Urtu aditzaren ekintza. 10. Nauka. Gaizto, oker. 11. Euskal preso, iheslari eta deportatu guztien giza eskubideen aldeko gizarte mugimendua. 12. Erakunde belikoa. 13. Emakume bati hika. 14. Berehala (alderantziz). 15. Italiako diru zaharra.

Sudokua

Erraza

			7					1
8							9	
	5		1	8	4			
6	3			7				8
		8					7	
5				6	8	1	3	
2			6	5		8	4	
9	4		8			7	5	
			2			6		

Zaila

	7			4		8	3	5
3	1				5			
		4	8	7				
	3		9		6			
				2				
			5		4		9	
				6	7	9		
			3				8	1
7	5	9		1			2	

Esaera zaharra

Koka ezazu puzzlearen pieza bakoitza bere tokian eta esaera zahar bat agertuko zaizu.



Anagramak

Hitz bakoitzak aurrekoak dituen hizki berak ditu, bat izan ezik, baina bestelako hurrenkeran.

Eusko	**EUSKO**
Ke asko dariona	
Hitz-multzo	
Etsi gabe aurre egin	
Itxi	
Setiatze	
Zintzo, prestu	
Finko, osasuntsu	
Gaizto	
Motel	
Borondatez, gogoz	
Hesi	
Izeba	**IZEKO**

Ebazpenak

Esker-eskuin: 1. Ximur, Usin. 2. Agor, Brusa. 3. Honelaxe. 4. Adelatu. 5. Aker, Pertsonal. 6. Idor, Dantzatoki. 7. Kuartel, Zarakar. 8. Errain, Serenata.
Goitik behera: 1. Xahu, Ike. 2. Igo, Adur. 3. Monakoar. 4. Uredarra. 5. Ler, Ti. 6. Bal, Den. 7. Urxapal. 8. Sueten. 9. Is, Urtze. 10. Nau, Tzar. 11. Sare. 12. Otan. 13. Noka. 14. Akat. 15. Lira.

Erraza

4	6	2	7	9	5	3	8	1
8	7	1	3	2	6	4	9	5
3	5	9	1	8	4	2	6	7
6	3	4	5	7	1	9	2	8
1	9	8	4	3	2	5	7	6
5	2	7	9	6	8	1	3	4
2	1	3	6	5	7	8	4	9
9	4	6	8	1	3	7	5	2
7	8	5	2	4	9	6	1	3

Zaila

9	7	6	1	4	2	8	3	5
5	2	4	8	7	3	6	1	9
4	3	1	9	8	6	5	7	2
8	9	5	7	2	1	4	6	3
2	6	7	5	3	4	1	9	8
1	8	3	2	6	7	9	5	4
3	1	8	4	5	9	7	2	6
6	4	2	3	5	9	7	8	1
7	5	9	6	1	8	3	4	2

ANAGRAMAK
Eusko
Ketsu
Testu
Eutsi
Hetsi
Setio
Onest
Sendo
Donge
Geldo
Oldez
Lezoi
Izeko

ESAERA ZAHARRA
"Bildots aho gozoak, ama biren esnea edan".

Itxaso Martin. Isiltasunak arakatzen

Itxaso Martinek (1981, Donostia) nobela bat idatzi zuen, *Ni, Vera*, azken urteak psikiatrikoan eman zituen birramonaren historian oinarrituta. Oinarri bera izan zuen master baterako egin zuen ikerketa-lanak, eta hari horri tiraka, garaiko psikiatriko bateko (1937-1950) 500 historia irakurri eta birramonarenari haien arteko zazpi emakumerenak gehituta ondu du *Eromena, azpimemoria eta isiltasuna(k) idazten: Hutsune bihurtutako emakumeak garaiko gizartearen eta moralaren ispilu* izeneko tesia.

"Medikuntza eta psikiatria gizartetik bereiz daudela uste dugu, baina ez da hala"

Uxue Apaolaza
ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Zure ikerketaren oinarrian zortzi emakume daude. Nor dira emakume horiek, nola aukeratu dituzu?

Abiapuntua nire birramona izan zen. 1935ean ingresatu zuten eta 1986ra arte egon zen psikiatrikoan. Ikerketarako oinarria zabaldu behar zen, baina argi neukan ez nuela "mikro" ikuspegi hori galdu nahi. Psikiatriko baten artxiboan lanean aritu nintzen: 1937koak ziren lehen historiak, eta urte horretatik 1950era artekoen artean zazpi aukeratu nituen... Zergatik zazpi horiek? Irizpidea arrazoiz justifikatu behar nuke akademiak hala eskatzen didalako, baina irakurri ahala nigan zerbait sortzen zutenak aukeratu nituen. Argi nuen emakumeak izango zirela, garrantzitsua iruditzen zitzaidalako lantzen ari nintzen ikuspegi feministatik kasu horiek aztertzea.

Garai jakin bateko psikiatrikoak eta psikiatria aztertu dituzu, frankismokoak. Zer berezitasun ditu garai hartako psikiatriak?

Psikiatriaren ikuspegia aldatu behar dugu, nire ustez. Izan ere, aplikatzen zen psikiatrian eragin handia zuen Espainiako Estatuan zegoen egoera politiko eta sozialak. Eta gaur ere hala da. Psikiatriaren ezaugarriak, azkenean, frankismoaren berberak ziren. Kasu askotan oso psikiatria biologizista zen, alegia, gorputzean zegoen gaixotasuna; baina, katolizismoak zuen indarra dela eta, moralak ere bazuen eragina. Medikuntza eta psikiatria gizartetik bereiz daudela iruditzen zaigu, baina ez da hala, erabat baldintzatuta daude.

Gainera, psikiatrikoak askotan izaten ziren benefizentziako erakundeak, eta asko ziren elkarte erlijiosoek sortutakoak. Horrek eragin zuzena zeukan ez bakarrik bertan zegoen tratuan, baita egiten ziren diagnostikoetan ere. Ikusten badituzu garai hartako psikiatriako tratatuak erabat baldintzatuta daude. Morala eta katolizismoa medikuntzaren oinarritzat zituzten.

Psikiatria, beraz, arauak betearazteko tresna ere bazen?

Hala zen. Birramonaren kasua aztertzen hasi nintzenean, beste arrazoi batzuk zirela eta, beste herrialde batzuetan idatzitako testuetara jo nuen, hemen oso gutxi aztertu izan den zerbait baita, ba-

Isiltasunera kondenatuta

"Paul B. Preciadok dio gaur egun garrantzitsuena ekoizle semiotikoa izatea dela, gauzak era batean azaldu ahal izatea... Eta han, psikiatrikoan, konturatu nintzen izugarrizko isiltasuna zegoela. Hori izan zen deigarriena, isiltasuna. Pertsona bat erotuta dagoela esateko erabiltzen dugun justifikazioa izaten da bere diskurtsoa ez dela logikoa/arrazionala: eta, horrela, isiltasunera kondenatzen dugu. Askok esaten zidaten 'zertarako hitz egingo dut, esaten dudan guztiak nire diagnostikoa indartzeko balio du'. Isiltasun hori ere islatu nahi nuen. Tesiaren testuan bertan hutsuneak sartu nituen, testua ez dago ohi bezala idatzita. Dena hasi zen isiltasun batetik, nire birramonaren inguruan zegoen isiltasunetik, eta gero beste isiltasun bat aurkitu nuen".

"Aztertu ditudan kasuen %90 ingururen arazo nagusia erruduntasuna zen. Eta errudun sentitzen ziren amatasuna gizarteak eskatzen zuen bezala ez eramateagatik, sexu desira izateagatik... Emakume rola egoki ez betetzeagatik".

tez ere genero ikuspegitik. Konturatu nintzen eroei edo eromenari buruzko testuetan agertzen zena gizonezko ero brillante bat izaten zela. Ideia erromantikoa zuten. Alde horretatik, garrantzitsua iruditzen zitzaidan emakumeak aztertzea. Historiak ikustea garrantzitsua da, teoria gauza bat baita, baina emakumeen historiak ikusten dituzunean eta, gainera, emakumeek berek idatzita ere irakurtzen dituzunean, ohartzen zara gizarteak agintzen duenak zer neurritan eragiten duen beren jarreran, arazoetan, kezketan... Eta ohartzen zara gizarteak markatutako roletik ateratzen zirenak gaixotzat jotzen zirela.

Orain atzera begiratzen dugunean eta urte haiek aztertzen ditugunean, esaten dugu "hara, pentsa, pertsona hauek epileptikoen leku berean sartuta zeuden...". Baina nik askotan egiten dudan galdera da, 2050ean 2017a begiratuko ote dugu, eta esan "hara, pentsa..."? Uneko egoerari oso lotuta dago psikiatria. Aztertu ditudan kasuetan, erruduntasuna zen %90 ingururen arazo nagusia. Eta errudun sentitzen ziren amatasuna gizarteak eskatzen zuen bezala ez eramateagatik, sexu desira izateagatik... Emakume rola egoki ez betetzeagatik.

Tesiaren izenburuan *Azpimemoria* aipatzen duzu eta *Antibiografia* da zure laneko beste kontzeptu garrantzitsu bat.

Antibiografia da Ignasi Terradas antropologoak planteatzen duen teknika. Eliza Kendalli buruzko liburu bat idatzi zuen, kapitalismoa ia bere garai bortitzenean zegoenean bere burua ibaira bota eta hil zuen langile bati buruzkoa. Emakume horren aipamena liburu baten oin-ohartxo batean baino ez da azaltzen. Horretan oinarrituta, Terradasek planteatzen du daturik ez dugun pertsona bati buruz idaztea, haren antibiografia lantzea, gizarteak ezkutatu nahi duen horrek, bazterrek, informazioa ematen baitigute gizarte horren muinari buruz. Nire birramona izan zen abiapuntua, eta birramona tabua zen familian, inork ez zuen horri buruz hitz egiten, inork ez zuen galdetzen; beraz, erronka zen nola lortu historia bat sortzea apenas informaziorik ez daukazun pertsona bati buruz.

Bestalde, gaur egun memoria darabilgu hitzetik hortzera, eta gizartearen arauei jarraitzen die memoria horrek. Nik azpimemoria erabiltzen dut, memoriaren ezaugarriak ez dituenez memoria ez den zerbait.

Gaur egungo psikiatriko batean ere aritu zara lanean. Zer lortu nahi zenuen?

Ikerketan aurrera egin ahala ohartu nintzen, artxiboan aurkitu nituen eskutitz ugariri esker... Txostenetan askotan ikusten zenituen eskutitzak bidali gabe gordeta. Baita bidali zizkieten eskutitzak ere. Ez dakit jaso eta segidan gordetzen zituzten, edo irakurtzeko eman ondoren. Pertsona hori benetan nola zegoen jakiteko erabiltzen zituzten.

Konturatu nintzen idazteko modua eta orrialdea erabiltzeko modua ez zirela ohikoak. Eskutitz batzuk horizontalean eta gero gainetik bertikalean idatzita zeuden; edo orrialdea beste era batera beteta zegoen, edo esaldiak amaitu gabe... Horrek ikusarazi zidan oso era arrazionalean ari nintzela eromenaz idatzi nahian, testu akademiko bat osatzeko, hain zuzen. Hori urruntzea zen, eta nik ahalik eta gertuen egon nahi nuen. Antropologian landa-lana egiten dugunez, ez dakit zenbat hilabetez ibili nintzen haiekin. Literatura-tailer bat ere egin genuen, borondatezkoa: irakurri eta idatzi egiten genuen, eta han idazten zituztenak ere erabili nituen ikerketan. ■

Analistek ez dute baztertzen EAn zatiketa gertatzea: E batetik eta A bestetik

Mondragon Unibertsitateko punta-puntako politologoekin hitz egin du Beranduegik Eusko Alkartasunaren kongresuaren atarian. Adierazi digutenez, alderdian lehian dauden bi aldeen arteko arrakala pentsa litekeena baino sakonagoa da, eta inor ez litzateke harritu behar kongresuaren ostean EA bitan zatituko balitz: batetik E, bestetik A.

Haritz Ostoeder adituaren esanetan, "E-k guztiz bat egingo luke EH Bilduren egitura berriarekin, eta A, berriz, bere kasa ibiliko litzateke mundutik, salbu eta hauteskunde garaietan koalizioak egiteko. Alegia, beti".

Kongresuaren gai-ordenari dagokionez, EAko prentsa bulegoak jakinarazi du ildo politikoa eta halako beste gauza aspergarri batzuk finkatuko dituztela larunbatean, eta Gorka Knörren abizenaren ahoskera egokiaz eztabaidatuko dutela igandean.

Ea zer gertatzen den.

Gorka Urtaranek Mendizorrotza eraitsiko du futbol zelai "berdeago" bat eraikitzeko

"Pakete hutsak dira, ez dute estadio bat merezi hirian", esaldia harrapatu zioten kamerek Gorka Urtaran Gasteizko alkateari joan den larunbatean Espainiako Kopako finalean Alavesek Bartzelonaren kontra galdu ondoren. Momentuko haserrea zirudien, baina aste honetan iragarri du erabakia: Mendizorrotza eraisteko plana eskatu dio Ensanche 21 elkarteari.

"Helburua estadioa botatzea da, ekologikoagoa izango den futbol zelai bat eraikitzeko", azaldu du alkateak. Oposizioa ez da ados agertu. "Bota egingo dut, oso erotuta nago!", erantzun die alkateak, dinamita-gerriko bat erakutsiz. Momentu horretan Beranduegiren kronistak ihes egin du udaletxetik eta ezin dizuegu kontatu une honetan zein den egoera.

ARGIA

INDARTU DEZAGUN INDARTZEN GAITUENA

Egin ARGIAkoa!

Eman eta jaso nahi duzun neurrian

argia.eus/eginargiakoa

AUTOBUS MAGIKOA

DISKO BERRIAREN AURKEZPENA

+ GURI BOST

+ ARTISTA GONBIDATUAK

+ BAD SOUND SYSTEM
+ JUANTXO GLAUKOMA
ETA KONPAÑIA...

2017
EKAINAK
10
LARUNBATA
22.00 _ DOAN

berria
antza KOMUNIKAZIO GRAFIKOA ARGIA

PAGOA
Euskal Herri berriko artisau garagardoa

PAGOALDEA 7, 20180
OIARTZUN
www.pagoa.eus

PAGOA
kafe antzokia